

Herririk Herri |2|

Su detektagailuak ipini gura dituzte
80 urtetik gorakoen etxeetan Abadiñon



Berbaz |8|

J.L. Zubillaga: "Iurretan etxebizitzak
lehenbailehen egitea ezinbestekoa da"

Kirola |16|

Liga amaitzeko hiru jardunaldiren faltan,
Tabirako EBA mailatik jaitzi egin da

Frankismoko biktimen gaineko ikerketa, lehenengoz, Atxondon

> Besteak beste, biktimen zerrenda osatu eta udazkenean omenaldia egin gura diete

> Testigantzak jasotzeko taldea sortu dute eta laster hasiko dira lanean

2



Kepa Aginako

Aldarrikapena jaiagaz lotu dute Martxoaren 8an

Durangaldea• Emakumeen Nazioarteko Eguna moztarri aldarrikatzailez jantzita etorri da aurtun. Inauteriak ere bazirela aprobetxatuz, martxoaren 8an herririk herri antolatutako kalejiretan

aldarrikapena jai giroagaz uztartu dute. Zapaburu konpartsak, bere aldetik, ekimen berezia gauzatu du: Durangon gizonen izena duten kaleetako plaka batzuetan emakume izenak ipini dituzte.

4

San Pedro Legañoeko eremua berreskuratu gura dute Berrizen

Berriz• San Pedro Legañoeko ermitaren arrastoak arakatzea, berreskuratzea eta gerora erakustea helburu duen proiektua onartu du asteon udalbatzarrak. Lehen fasean arkeologia lanetan zentratuko dira. Orain arte aztertutakoaren arabera, baliteke Berriz herriaren sorgunea toki horixe izatea.

6

Hiper Simplyn deituta zegoen greba bertan behera utzi dute

Durango• Bajan zeuden hiru langile kaleratu zituztela-eta, Hiper Simply supermerkatuko enpresa komiteak greba deituta zeukan biharko. Asteon zuzendaritzak lan baldintzak hobetzeko proposamena egin du, eta ontzat jo dute beharginek. Hiru kaleratuek, baina, ez itzul-tzea erabaki dute.

3

'Amaiera hasieran dator': Sermond's-en rock basatiaren isla

KULTURA• Otsailaren erdialdean kaleratu zuen Sermond's boskoteak *Amaiera hasieran dator* disko berria. Intro bat eta hamar kanta dira. Aurreko *Azken bala* lanaren bidetik, baina "abiadura, indar eta energia gehiagaz" datozela adierazi digute.

11



•Otxandio

Zine Zaharrean kontsultategia egiteko lehenengo urratsak

4

•Izurtza

Industriagunea handitzearen aurka bozkatu du gehiengoak

7

•Zaldibar

Terrazen gaineko ordenantza indarrean ipini dute

4



Ekoden

Arkotxa, 4 - Etxabea
48200 DURANGO
Tel.: 94 621 78 22

**EZ GARA
FRANKIZIA
GURE ARDURAPEAN
ZAUDE**

www.clinicaekoden.com

ORTODONTZIA IKUSEZINA



URTE
1ean

HERRIRIK HERRI >

ATXONDO

Frankismoak herrian eragindako biktimen gaineko ikerketa hasiko dute

Ahaztuak 1936-1977 eta Euskal Memoria fundazioaren laguntza izango du lan taldeak

Antonia Garaik Arrazolatik ihes egin behar izan zuen gerra denboran. “Tiragomas” Arrazolako meategietan behar egiten zuten asturiar biren semea izan zen, eta gudari ibilizen Gerra Zibilean eta Bigarren Mundu Gerran. Kasu horiek hor daude, eta gehiago ere egongo dira.

Biktimen zerrenda osatu eta udazkenean omenaldia egitea da, besteak beste, helburua

David Cobos alkateak azaldu duenez, “herrian sekula ez da lanke-tarik egin; ez daukagu daturik, frentean nortzuk egon ziren, zenbat fusilatu zituzten...”. Horregatik, memoria historikoa berreskuratzeke lanahasiko dute Atxondon: “Biktimen zerrenda egin eta udazkenean omenaldia egin gura diegu, besteak beste”.

Testigantza batzeko talde bat sortu da herrian, eta laster eman-ango dituzte lehen pausuak. Taldea zabala da; lagundu gura duenak parte hartzeko aukera edukiko du.



Hogeita hamar bat lagun batu ziren 'Atxondon ere biktimak egon ziren' berbaldian.

Ikerketan Ahaztuak 1936-1977 elkartearen eta Euskal Memoria Fundazioaren laguntza izango dute. “Atxondon ere biktimak egon ziren” berbaldia eman dute asteon Ahaztuak 1936-1977ko Martxelo Alvarezek eta Euskal Memoria fundazioko Txema Uriartek.

Inpunitatea

Ahaztuak 1936-1977 elkarteak “historiaren irakurketa demokratikoa” egiten duela azaldu du Martxelo Alvarezek: “Horrelako ekintzen arduradunak historiaren aurrean zigor barik geratzen badira, ezin daiteke demokraziarik egon”. Bi

hizlarien berbetan, “inpunitate ereduak bizirik dirau”. Txema Uriartek azaldu du Euskal Memoriak liburua kaleratu behar duela errespasioaren ikuspuntutik gudaren osteko kronika kontatzen: “Erreprimituak izan garen une horiek guztiak atera behar ditugu”. ■ A.U.



Martxelo Alvarez: Ahaztuak 1936-1977 elkarteko kidea

Txema Uriarte: Euskal Memoria fundazioko kidea

Horrelako ikerketa bat egiteko zeintzuk dira lehenengo pausuak? Informazioa nork eman dezakeen zerrenda bat egin beharko da, euren gaitasuna joan eta galdetegi bat egiteko. Hori grabatu, euskarri digitalan gorde eta herrira zabaltzeko beharko litzateke.

Zer egin daiteke batutako informazioagaz?

Bi planotan behar egitea beharrezkoa da. Informazio bila joan eta artxibo bat eduki behar da, gero

gureak lako elkarteek kaleratzeko eta gure irakurketa egiteko; ez dadi-la bilketa batean bakarrik geratu. Gainera, gazte jendea egongo da arte ederretan eta ikus-entzunezkoetan abila dena. Material horrekin izugarritzeko lanak egin ditzakete. Sorpresak hartzen dira; herriko edo alboko herriko jende ezezaguna topatzen duzu itzeleko bizitzagaz. Elorrikoa zen, adibidez, Felix Urtzubi hegazkin gidaria. Faxistek hiru aldiz erasotu zuten, eta hiruretan lortu zuen

errepublikazaleen frontera itzuli eta hegazkina berriro hartzea.

Elkarrizketatuak bizipenak kontatzeko gogoz egoten dira?

Batzuetan hasieran mesfidantza z agertu arren, jendea baten bat galdetza joateko zain dago. Sarri ingurukoek galdetzen diete: “Zelan ez duzu hori arinago kontatu?”; “Inork ez didalako galdetu”, erantzuten dute. Eurentzako garrantzitsua da kontatzea, eta arin ibili behar dugu; zaharrenak hiltzen dabilta. ■ A.U.

ABADIÑO

Sute-detektagailuak 80 urtetik gorako bizilagunen etxeetan

Etxebizitza horietan dauden segurtasun gabeziak identifikatu gura dituzte



Enpresaren arduraduna, alkatea, eta Marisa Vazquez zinegotzia, atzoko aurkezpenean.

Bizkaiko etxeetan suteak gertatzen diren kasuen %80 adinekoak bizi diren etxeetan gertatzen direla dioen datua kontuan hartuta, prebentzioa helburu duen programa aurkeztu dute Abadiñon asteon: suteen kontrako alarmak instalatuko dituzte 80 urtetik gorako bizilagunak dituzten etxeetan.

Borondatezkoa da programan parte hartzea, eta 80 urtetik gorako abadiñarrak horretara gonbidatu dituzte

Programaren hartzaileak 80 urtetik gorako herritarrak dira: bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako abadiñarrak, batez ere. Etxean kea sortuz gero, bizilaguna eta auzotarrak ohartaraziko dituen alarma bat ezartzea eta sutea gertatuko balitz zelan jokatu jakiteko oinarritzko jarraibideak eskaintzea jasotzen du programak.

Durungaldean, besteak beste, Atxondon eta Durangon ere programa bera martxan ipini duen Atiempo enpresaren arduradunak, Jon Ensunzak, azaldu duenez, zerbitzua jasotzeko beharra eta interesa izan dezaketela uste duten berrehundik gora etxetara bidali dute zerbitzuari buruzko informazioa jasotzen duen gutuna.

Datozen asteetan, programan parte hartzeko interesa adierazten duten etxebizitzetara bisitak egingo dituzte enpresako teknikari batek eta gizarte laguntzaile batek; Jon Ensunzaren berbetan, “segurtasunari dagokionez etxe horietan dauden gabezia eta beharren azterketa egingo dugu”, eta ondoren instalatuko dituzte suteen kontrako alarmak.

Etxez etxeko bisitak egiten martxoaren 14an hasiko direla iragarri du Vazquez zinegotziak, eta 80 urtetik gorako abadiñar guztiak gonbidatu ditu programaren abantailak aprobetxatzera. ■ I.E.



DURANGO

Hiper Simplyko zuzendaritza eta beharginak ados ipini dira

Ondorioz, biharko deituta zegoen greba bertan behera utzi dute



Joan zen asteko barikuan hainbat kontzentrazio egin zituzten supermerkatuaren aurrean.

Joan zen astean, Durangoko Hiper Simply —saso bateko Sabeco— supermerkatutik hiru langile kaleratu zituzten. Langile horiek bajaran zeudela bota zituzten, gainera. Komiteko sindikatuan sei ordezkari dituen ELA-ren ustez, "enpresak ez du nahilangileek baja hartu dezaten, eta hori lortzeko jazarpen kanpaina bat abiatu du". Jazoera horren ondorioz langileen artean sortutako mesfidantza oinarri hartuta, sin-

dikatuek martxoaren 12rako greba deitu zuten. Martitzeneko batzarrean, ordea, enpresako goi ordezkariak konpromiso batzuk hartzeko prest zeudela jakinarazi zieten. Sindikatuek langileekin

Enpresako zuzendaritzaren proposamenak onartu zituzten langileek egueneko batzarrean

baloratu zuten akordio proposamena, eta hauen oniritzia jasota greba bertan behar uztea erabaki zuten atzo. Komitean, ELA ez ezik UGT eta CCOO ere badaude.

Zuzendaritzak lanaldi osoak egiteko konpromisoa —orain arte lanaldi erdiko kontratu askogaz ibili dira— erakutsi zuen; baita prekarietatea murrizteko asmoa ere. Kaleratutako hiru langileek, eguera hausnartu eta enpresara ez itzultzea erabaki dute. ■ J.D.

Bilbaoren esanek kutsu elektoralista dutela salatu dute

Ahaldun nagusia A8ko lurreta-Gerediaga tramuari buruz mintzatu zen

A-8 autobidean telepeajea baliatzen dutenentzat lurreta eta Gerediaga bitarteko zatia doakoa izango dela adieraziz Bizkaiko Aldundiaren ordezkariak egin zituen adierazpenak salatu ditu hainbat alderdik. Ezker Abertzalearen iritziz, "ez da lehenengo aldia nola baitaite merketzeak edo ordain leku jakin batzuk desagertuko direla esaten digutela, gehien bat hauteskunde kanpainak hasi baino lehenago". "Lotsagabekeri galanta da", diote, "autopistaren lanen gastua berreskuratuta dagoelako eta bide osoa doakoa izan beharko litzatekeelako".

"Herritarrei adarra jotzea" leporatu die Aralarrek Bizkaiko Aldundiko agintariei. "Iraingarria da hauteskunde bezperan Durangora etorri eta telepeajearen erabiltzaileei bakarrik eragingo dien neurria iragartzea". Zera ere gehitu du: "Durangaldeko herritarrek pairatzen dutena lako jatorriaren arabera bereizketak

Telepeajea baliatzen dutenei tarte hori doan aterako zaiela aurreratu zuen Bilboak

rik bako errepide politika" garatu dezala.

PSE-EEK "seriotasun falta" salatu du, eta neurri bideragarri, justu eta legalak hartzeko exijitu dio Jose Luis Bilbaori. PP alderdiak "horrelako iragarpenak EAJren foroetan" egin izana kritikatu du, eta gaineratu du "neurriak Zornotza eta Ermuko herritarrak diskriminatzen" dituela.

Jose Luis Navarro Abadiño alkateak ere egin du berba. Bilbaori azaldu dio "zentsugabea" dela doako bihurtzeko asmoa adieraztea eta sarrera tele-ordainketa dutenei soilik zabaltzea. ■ M.O.

Ghanako kultura ezagutarazteko jaialdia egingo dute domekan

La Paz y el Amor elkarteak (Ghanako lagunaren elkarte Euskadin), beste hainbat eragileren laguntzagaz, Ghanaren inguruko jaialdia egingo du domekan Durangoko Merkatu Plazan. 17:00etatik 20:00etara Afrikako nazio horretako historia eta kultura emango dute ezagutzera.

Jaialdiko aurkezpen ekitaldiaren ondoren, 17:00etan, *Arise Ghana For Your Country* abestia eskainiko dute. Segidan ELA sindikatuko Emerita Cuellarrek *Lan egiten baduzu eskubideak dituzu* izeneko hitzaldia eskainiko du. Ondoren, 17:50 inguruan, Ghanako musikagaz gozatu eta bertako plater tipikoak dastatzeko aukera egingo da.

Azokan gauzatuko da jaialdia: musika, antzerkia eta hitzaldiak egingo dira

Hortik aurrera, musika eta antzerkia izango dira protagonista. M' Lomp Durangoko talde senegaldarraren doinuek girotuko dute ekimena, 19:00etan, eta Euskadiko Ghana Elkarteak bere herriaren independentziaren historia kontatuko du antzezlan batean. Jaialdia Ghanako Quora txarangagaz amaituko dute. ■ J.D.

Amaitu dituzte Juan Itziarko kalean egin beharreko lanak

Obren helburua Juan Itziarko kaleko portaletara sartzea erraztea izan da; batez ere, mugikortasun arazoak dituztenen eta ezohiko zerbitzu publikoei. Hori lortzeko, hainbat aldaketa egin dituzte. Iazko azaroan hasi ziren obrak, eta hasiera batean hiru hiletan amaitzea aurreikusten bazen ere, atzerapen txiki bat izan dute. Aurrekontua 183.951,26 eurokoa izan da.

Azaroan hasi ziren obrek. Guztira, 183.951, 26 euroko aurrekontua izan dute.

Egin diren aldaketen artean, aipagarria da arrapalak ezarri dituztela etxeetako atarietara sarrera errazteko. Bestalde, orain arte egon den baldosa asfaltogaz ordezkatu dute; honek, oinezkoentzako bidea eta errepeida bereizten lagunduko du. Argi-sare zaharra kendu eta berri bat ere ezarri dute. Hasierako proiektuari auzokideek egindako ekarpenak ere gehitu dizkio. Ekarpene horien artean, tuneletako argiak daude, adibidez; informazio panelak ezarri dituzte. Aitziber Irigoras Durangoko alkateak auzokideek egindako ekarpen horiek eskertu nahi izan ditu, baita. ■ A.M.

AHTaren Durango-Abadiño tarteko aktak sinatzera deitu dute astean



Martitzenean Abiadura Handiko Trenaren Durango-Abadiño tarteari dagozkion desjabetze aktak sinatzera deitu zituzten lurjabeak Lariz Torre eraikinera. ADIFeko eta udaleko ordezkariak batu ziren lurjabeekin batera. Tramu hori da Bizkain oraindik egiten hasi barik dagoen bakarra. Lariz Torreren kanpoaldean AHT Gelditu Elkarlanak kontzentrazioa burutu zuen, *Desjabetzeak Lapurreta dira, AHT Gelditu* lelopean. ■ J.D.

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morcillas
Alberdi Harategia

ALBERDI
drekozinatua

DURANGALDEA

Jaia eta aldarrikapena eskutik emakumeen eskubideen alde

Herririk herri mozorroturik egindako kalejirez gainera, Zapaburu konpartsak gizonen izena duten kaleetako plaketan emakume izenak jarri zituen



Gizon baten izena duen Durangoko kale baten plakari Julene Azpeitia izena ipintzen.

Martxoaren 8a jai giroz mozorratutako egun aldarrikatzailea izan zen. Emakumeen Nazioarteko Egunean Durangaldeko hainbat herritan egindako kalejirek berdintasuna eta emakumeen eskubideen defentsa izan zituzten oinarri. Asteburu honetan ere hainbat ekintza egingo dituzte han eta hemen; horietatik ezagunena eta jendetsuena domekan Ezkurditik abiatuko den Lilakrosa izango da.

Zapaburu Durangoko gazte konpartsak ekimen berezia gau-

zatu zuen. Konpartsakoen ustez, "emakumea bizitza publikoan bere lekua egiteko zailtasunekin aurkitzen da oraindik ere, eta horretaz jabetzeko Durangoko kaleen izenei begiratu besterik ez dago". Emakumei eskainitakoak "salbuespen dira, eta gehienak san-

Saharako kanpamenduetara bideratuko dute Lilakrosagaz domekan batutako dirua

tuen gainekoak". Horregatik, Durangoko kale batzuetako izenak emakumezkoen izenengatik aldatu zituzten. Horietako bati Julene Azpeitia izena ipini zioten.

Lilakrosa

Berdintasunaren aldeko herri lasterketa den Lilakrosa etzi, 12:30ean, abiatuko da Ezkurdi plazatik eta herriko kale asko zeharkatuko ditu. Aurtengo ekimenean batutako dirua Saharako kanpamenduetan bizi direnei laguntzeko izango da. ■ J.D.

OTXANDIO

Udalak akordioa lortu gura du zine zaharra desjabetu ahal izateko

Joan zen asteko udalbatzarrean onartu zuen udalak desjabetza prozesuari hasiera ematea

Zine zaharraren eraikinean mediku kontsultategi berria sortu gura du udalak, eta proiektua gauzatu ahal izateko lehenengo urratsa eman zuen joan zen asteko udalbatzarrean: desjabetza prozedurari ekiteko erabakia hartzea. Aritz Otxandiano alkatearen esanetan, "desjabetza espedientea hasi arren, asmoa jabeekin lagun arteko akor-

diora ailegatzea da". Laster haiekin hartu-emanetan ipiniko direla argitu digu alkateak, egon daitezkeen aukerak aztertzeko.

Pediatría zerbitzua ere ipini gura dute etorkizuneko kontsultategi berrian

Egungo kontsultategia etorkizunean "txiki" geratu daitekeela-eta, zerbitzua eraikin berri batera eroan gura du udalak. Gainera, pediatria zerbitzua ere ipini gura dute, lekua aprobetxatuz.

Proiektua, pausuz pausu

75.000 euro ditu udalak aurtengo aurrekontuetan horretara bideratuta; Otxandianok azaldu du "astiro-astiro" pausuak ematen joan gura dutela. Izan ere, inbertsiorako dirua Eusko Jaurlaritzak ipini beharko luke, eta "krisi garaiotan ez dakigu zer gertatu daiteken", alkateak dioenez. Desjabetzaren ondoren, diru-laguntza eskatzea litzateke hurrengo pausua; gero proiektua diseinatzea. Amaitzeko, "inbertsioa noiz egin" Jaurlaritzagaz zehaztuko litzateke. ■ M.O.

ZALDIBAR

Terrazen gaineko ordenantza onartu egin du udalak

Ostalariek oinezkoentzako espazioa zaindu eta baldintza teknikoak bete beharko dituzte

Ordenantza honen bitartez, terrazak ipintzeko aukera eskaintzen du udalak, arau konkretu batzuk betez. Mahai eta jesarlekuez gainera, eguzkitakoak, estalkiak, alboko babesak, argiak eta berogailuak ere barneratzen dira ordenantzan, osagarri moduan.

Kalea, plaza eta oinezkoentzako gunea den arabera baldintzak aldatu arren, oinezkoei beti utzi beharko zaie pasabidea.

Lizentzia bederatziz hilabetero berritzeko aukera egongo da

Gainera, alboko babesak jarri beharko dute, azalera mugatzeko eta itsuak oztupoaz ohartzeko.

Terraza ipini ahal izateko lizentzia bederatziz hilabetero berritzeko aukera egongo da.

Arau-hauste arinak izango dira ordutegia ez betetzea, baimekin ez izatea eta garbi ez mantentzea. Larria izango da araututako osagaiak jartzea baldintza tekniko eta estetikoak bete barik; publizitatea ezin daiteke ipini, esaterako. Oso larritzat hartu dira, berriz, oinezkoei ibiltzea galaraztea eta espazioa hondatzea. 200etik 3.000 eurorainoko isunak ipiniko dituzte, larritasunaren arabera. ■ M.O.



Arautegiaren arabera okupatu ahal izango dute espazioa.

GARAI

Sukaldaritza ikastaroa antolatu du Trumoittek

Apirilean egingo dute ikastaroa; izena emateko aukera, berriz, hilaren 31 arte egongo da

Trumoitte kultur elkartek sukaldaritza ikastaroa antolatuko du, apirilean hasita. Oinarrizko sukaldaritza ezagutzeko aukera emango du ikastaroak, eta parte hartu gura duenak 30 euro ordaindu beharko dituela jakin eragin

Oinarrizko sukaldaritza ezagutzeko aukera emango du ikastaroak

dute antolatzaileek. Dagoeneko hasita dago izena emateko epea, eta martxoaren 31 izango da horretarako azkeneko eguna telefono zenbaki honetan: 649 130 052.

Apirilaren 26an izango da ikastaroaren lehenengo hitzordua, eta guztira 10 saiotan elkartuko dira parte-hartzaileak. Asteazken hiru eguneko maiztasuna izango duela iragarri dute. 18:00etatik 20:30era garatuko dituzte saioak, Otea-loran elkartean. ■ M.O.

BILBAO ASEGURUAK | Grupo CATALANA OCCIDENTE
 Jabier Rueda
 Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
 Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

GAER DESINFEKZIOAK
 Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
 LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
 Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO - ABADIÑO

Bautistako
beherapenak

BEHERAPENAK

% 70eko deskontuak, altzari.bilduma aldaketagatik.
Bilatu gure dendetan deskontudun zirkuluak.



Urtarrilaren 7tik martxoaren 6a arteko beherapenak, edo estoka amaitu bitartekoak

BERRIZ

San Pedro Legañoeko eremua berreskuratuko du Berrizko Udalak

Lanak amaitu eta gero, aurkitutako Erdi Aroko arrastoak ikusgai jarri gura dituzte bisitariarentzat

Eguazteneko udalbatzarrean onartu zuten proiektua ordezkariak. San Pedro Legaño orain arte aurkitutakoan sakondu, berreskuratu eta gerora erakustea du helburu udalak. Garrantzi handia eduki dezake ingurune horrek herriaren historian, eta tamaina horretako egitasmoa ipini dute martxan.

Aurrera begirako ibilbidea bi ataletan banatuko litzateke: arkeologia lana eta interpretazio erakusketaren diseinua. Lehenengo fasea

Bisitariak informazioa bere kabuz interpretatzea izango da erakusketaren helburua

2011-2012 urteetan burutuko litzateke.

Espero baino zaharragoa

Bertan aurkitutakoaren eta lanen nondik norakoen berri gaur goizean ziren ematekoak Berrizen, udazkenetik lanean ibili diren arkeologoen azalpen zehatzekin.

Hala ere, San Pedro Legañoeko ingurune horren garrantzia erakusten duen datu bat aurreratu digu Gorka Camara hirigintza zinegotziak: topatutako hilobi batzuk ez zeuden hegoaldera begira kokatuak; horren arabera, itxaroten zutena baino zaharragoak ei dira bertako arrastoak. Berrizko lehenengo biztanleatza ari gaitzke berbetan; beraz, herriko sorlekua izan daitekeenaren teoriak



Hasierako lanek elementu esanguratsuak azaleratu dituzte.

indarra hartzen du. Laster hasiko dituzte arkeologoek euren ikerketa lan berriak, eta baliteke ondorioetan ere nobedadeak izatea.

Erakusketa

Proiektuaren azken asmoa, aurkitutakoagaz interpretazio eremu bat sortzea da. Hau da, bisitariak

bere kabuz jaso ahal izatea bertako informazioa. Horretarako, ermitaren barrualdea eta ingurua bisitetarako egokituko dituzte, eta bertan zein herrian panelak jaretzea aurreikusi dute. Ondotik igarotzen den GR-Mikeldi ibilbideagaz lotzea ere badute asmoen artean, aurreratu dutenez. ■ M.O.

ELORRIO

Zapatuan ere giro ona izan zen Karnabaletan

EMEK karnabal zapatuan herria girotzeko hainbat ekitaldi antolatu zituen, mozerro lehiaketa tartean



Helduen sariketan lehenengo saria lortu zuen koadrila. EME

Herrian martitzenean lako girorik zapatu karnabalez egoten ez dela eta, aurten zapatuan ekitaldi ugari antolatu dituzte herriko merkataritza eta tabernariak. Emaitzagaz pozik agertu da Mari Mar Fernandez EMEko lehendakaria: "Arratsaldean, batez ere, jende asko egon zen kalean, inoiz baino gehiago".

Mozorro lehiaketak izan ziren, besteak beste, zapatuan. Umeen lehiaketan Mario Brossek, Guffik eta moja batek irabazi zuten saria. Nagusienean, berriz, honako mozo-

roak saritu zituzten: septimo de caballeria, poker jokariak, Veneziako inauterietako damak, tiro-pitxioia, hippieak eta hankapalo bat.

Asteburuan, Aukera Azoka

Gaur goizean Hilario Azkarate frontoian Aukera Azoka hasi dute herriko merkatariek. 16 dendetako generoa dago bertan salgai, normalean baino prezio merkeagoetan. Goizez eta arratsaldean egongo dira gaur eta bihar; 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara. ■ A.U.

Plana aldatzeko eskaria egin dute BBNNetan EB eta Aralarrek

San Antongo eta Pulla-Azkarretako lurra industriarako lur izendatzea Hiri Ordenamendua- ren Plan Nagusian ageri den neurrietako bat da. Ezker Batuak eta Aralarrek Batzar Nagusietan ez-legezko proposamen bana aurkeztu dute, BBNNetan udalari lur horiek ez birkalifikatzeko eskatzeko.

Lur horiek "nekazaritzarako balio estrategiko handia" dutela adierazi du José Ferrera Ezker Batuko batzarkideak. Jaur-laritzako Landaren Garapenerako Zuzendaritzak argitaratutako txosten baten horrela azaltzen dela eta txosten hori kontutan hartzeko eskatu du Ferrerak Batzar Nagusietan.

San Anton eta Pulla-Azkarretako lurra ez birkalifikatzeko eskatu dute

Aralarrek ere txosten horretako "gomendioak Elorrioko HAPN-n barnatzea" eskatu du. Aralarren esanetan, birkalifikazioa "Durangaldeko Lurralde Plangintza Partzialarekin kontrasteanean" egongo litzateke.

Bi alderdiek presazko prozeduraren bitartez erregistratu dute prozedura, dagoeneko plana behin-behinean onartuta dagoelako. ■ A.U.

IURRETA

Autodefentsa ikastaroan izena emateko aukera

Maitena Monroek emango du ikastaroa; udalak ikastaroa hau urtero antolatzeko asmoa dauka

Apirilaren 2an Maitena Monroek emango duen autodefentsa feministarako taldea osotzeaz dago. Ikastaroaren ardura dunek azaldu dutenez, ikastaroan, "goizean esperientziak

kontatu eta ikuspuntua zabaltzeko ahalegina egingo da, eta arratsaldean teknikak ikasiko dituzte". Hilaren 25a aurretik eman daiteke izena Ibarretxe kultur etxean.

KZgunean, Google tresnak

Bestalde, Google erramintzen inguruko ikastaroa emango dute hilaren 23an KZgunean, 16:00etatik 18:00etara. Hilaren 18a arte eman daiteke izena. ■ A.U.

Goizez arlo teorikoa landuko dute, eta arratsaldean teknikak ikasiko dituzte

MAÑARIA

Ortugintza ekologikoari buruzko saioak aukeran

Teoria eta praktika lotuko dituzte EHNE sindikatuak apiriletik ekainera eskainiko dituen saioetan

Ortuan ongari eta teknika ekologikoak baliatzen ikasteko aukera da, apiriletik ekainera arte, EHNE sindikatuak antolatutako ikastaroan mañariarrei eskainiko dietena. Ortuetan gai kimikoak erabiltzeak eraritako desorekak ekiditeko helburuagaz, nekazaritza ekologikoa garatu ahal izateko oinarriko jarraibideak jasoko dituzte nekazarien elkarteak antolaturiko ikastaroan izena

ematen dutenek. Apiril hasierara arte eman ahal izango da teoria eta praktika uztartuko dituen ikastaroan parte hartzeko izena: 16 lagunekoa taldea osatzea aurreikusi dute antolatzaileek. ■ I.E.

Ortuan ongari eta teknika ekologikoak baliatzen ikasteko aukera eskainiko dute



Durungaldean labor

Anarkismoari buruz ariko da bihar Lucio Urtubia

CNT sindikatuak jardunaldi anarkosindikalistak antolatu ditu Durangoko San Agustín kulturgunean. Gaur Iñaki Astorekak *Zientzia, Pedagogia eta Arteak* izeneko hitzaldia eskainiko du. Zapatuan, Lucio Urtubia eta Juantxo Esteban anarkismoak gaur egun duen indarrak arituko dira. Hitzaldiak 19:00etan hasiko dira.

Euskararen Ordenantza eguneratzen Elorrion

Euskararen ordenantza berritzen dabilta Elorrion. Udalbatzarrak hasierako onarpena eman dio, eta gura duenak datozen hiru asteetan bere ekarpenak egin ditzake. Ordenantza udaletxean eta webgunean ipini dute eskuragarri (www.elorrio.net). Orain indarrean dagoen ordenantzak hamar urte tik gora ditu; 1999an onartu zuten.

Gazte Asanbladen eta Gaztetxeen Eguna

Durungaldeko eta Lemoako gaztetxe eta gazte asanbladen koordinadorak Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Eguna ospatu ko du, zapatuan, Lemoan. 14:00etan paela txapelketa egingo dute; 17:00etan olinpiadak egingo dituzte, eta punk-poteoa. D.J. Mark.L-ren musika eta hainbat kontzertu ere egingo dituzte 22:00etan.

San Prudentzio jaietako kartel lehiaketa abian

Abadiñoako Udalak San Prudentzio jaien kartel lehiaketa antolatu du. Kartelak egiteko teknika askea da, eta martxoaren 28a baino lehenago aurkeztu behar dira Udal Mediatekan edo Errota kultur etxean. Lanek *San Prudentzio Jaiak 2010 Traña-Matiena Abadiño* leloa izan behar dute. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du.

IZURTZA

Industriagunea handitzearen kontra bozkatu dute gehienek

Herriko ordenamenduaren gaineko herri galdeketaren emaitzak dira



Industriarako lursail gehiago ez okupatzearen alde bozkatu zuten gehienak. Judit Fernandez

Ordenamendua berritzeko prozesuaren galderetako bati erantzunez, datozen urteetarako herriko planeamenduan industriaguneak garatzeko beharrik ez dutela ikusten adierazi dute 102 izurtzarrek; parte hartu dutenen %80k bozkatu du industriaguneak ez handitzearen alde.

Udalak zabalduko datuen arabera, izurtzarren %45 hurreratu da herri galdeketa bere botoa ematera; 126 herritar, guztira. Parte hartzearen datuak oso positibotzat jo ditu gobernauk: "Oso antza izan da; adin guztietako herritarrek hartu dute parte".

Bozka ematera hurreratu zirenek, bestalde, euren ustez datozen urteetan etxebizitza eraikuntzak zer eredu jarraitu behar lukeen

Bertan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke, frontoia lekualdatzearen alde

Arana eta Jauregizar ikusten ditu etxebizitza pribatua garatzeko leku apropos moduan herritarren %40k

ere adierazi zuten: bertan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke, frontoia lekualdatu eta frontoi berriaren alboan erabilera anitzeko eraikina egokitzearen alde bozkatu du herritarren %59k.

Bestalde, etxebizitza pribatua garatzeko leku bat aukeratzeko, Arana eta Jauregizar inguruak apropos ikusten dituzte izurtzar gehienek; %40 dago leku biotan etxebizitza pribatua eraikitzearen alde. Amaitzeko, BI-623 errepidearen bazterrean familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzak eraikitzen jarraitzearen alde agertu da bozkatu dutenen %59k. ■ I.E.

Udalaren webgunearen inguruko eztabaida

Bizkaiko Aldundiak udalari txikitako udalen webguneak berritzeko eskaintzen duen Biscaytik programa Izurtzan ere baliatzeko proposamena egin

Aldundiak eskaintzen duen sistema "doakoa" dela nabarmendu du EAJK

zuten jeltzaleek udalbatzarrean. Eztabaidasortu zuen gaiak, eta proposamena "alboratu ez" arren, martxan dagoen udalaren webgunean integrazteko asmoa agertu zuten Ezker Abertzaleak.

Aldundiak eskaintzen duen sistema "doakoa" dela, eta gaur egungoak baino zerbitzu osoagoa eskaintzen duela nabarmendu zuten Mendia jeltzaleak. ■ I.E.

MALLABIA

Erakusketa gidatuekin erakutsi gura dute Hiri Antolamendu Plana

Plana martxoan aurkeztuko du Udalak, eta apurka-apurka gizarteratzea prestatzen dabil

Udaleko alderdien, sindikatuen eta bestelako hainbat eragileren artean gorpuztu duten Hiri Antolamendu Plana zelan gizarteratu erabakitzen dabil Udalak. Oraindik ez dituzte ekintza guztiak zehaztu, baina aurkezpena martxoan izango dela aurreratu dute eta ekimen batzuen gaineko nondik norakoak ere eman dituzte.

Plana gizarteratu ondoren, hile biko epea zabalduko dute herritarren ekarpenak batzeko

Esaterako, planaren aurkezpena egiten dutenean, herriko plazan mapekin, informazio tau-

lekin eta bestelako osagaiekin osatutako erakusketa bat antolatzeko asmoa dutela azaldu dute udal ordezkariak. Erakusketa horretan udal teknikari edo ordezkari bat egongo da bertaratzen direnei argibideak emateko.

Horrez gainera, auzoko bizilagunekin pare bat batzar egiteko asmoa dute Mallabiko Kultur Etxean. Auzoen errealitatea azaltzeko eta dudak argitzeko batzarrak izango litzateke. Gainerako ekintzak datozen egunetan zehaztuko dituzte. Plana gizarteratu ondoren, hile biko epea zabaldu gura dute herritarren ekarpenak jasotzeko. Denen adostasuna lortu eta maiatzean onartu gura dute Hiri Antolamendu Plana. ■ J.D.

NACEX
San Roke, 12 behea (48200 DURANGO)
Tel.: 94 620 01 62
Mug.: 666 444 101
4810.operativa@nacex.es
www.nacex.es
Informazio orokorra: 900 100 000

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz

Arrike
Liburudonda
Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

Hemen agertu gura baduzu
deitu!

94 621 79 02

BERBAZ >

“Krisialdian, daukanak ipini behar du dirua; instituzioek enpresei lana eman behar diete”

Joan den astean lurretako aurrekontuei babesa eman ondoren izan gara Ezker Batuko zinegotziagaz berbetan



Jose Luis Zubillaga •

■ Lurretako zinegotzia eta Ezker Batuko koordinatzailea Bizkaian

■ CCOOeko kidea da

ra okertu denean enpresak gorde duen dirua ez da agertu, makinak zaharkituta daude eta egoera gaitza da.

Zelan ikusten dituzu datozen hauteskundeak?

Polo bi daude gaur egun: nazionalista espainiarak eta soberanistak. Bi polo horien artean, guk, alderdi errepublikazale moduan, badaukagu lekua; badago jendea alde batekoa edo bestekoa ez dena. Testuingurua konplikatu da; ez dakit Sortu legeztatuko duten, baina modu batera edo bestera Ezker Abertzalea hauteskundeetan egongo dela pentsatzen dut. Beti pentsatu izan dut epaileek eta gobernuak ez dutela erabaki behar alderdi bat aurkeztu daitekeen ala ez; ordezkaritza edukiko duen herritarrek erabakiko dute. Edonoren kasuan, baita eskuin muturreko alderdi ustez demokratikoen kasuan ere.

Durangon aurkeztuko du zerrendarik Ezker Batuak?

Sabino Bilbaok zinegotzi kargua lan kontuengatik utzi zuenean, Hauteskunde Batzorde zentralak hartu zuen ordezkapena egiteko ardura. Zerrendan hurrengo zirenei banan-banan gutuna bidaltzen dabilta, eta arrazoi pertsonalengatik zerrendatik inork ezin du postua hartu. Orain hamargarrenagaz dabilta, 21etik. Ezker Batuak pertsona bat ipini dezake, baina horretarako zerrendako guztiek dimisioa eman behar dute. Hauteskunde hauetan zerrenda berria aurkeztuko dugu, eta legegintzaldi lasaia izatea itxaroten dugu. ■ A.Ugalde

Galderei erantzuteko prestutasunez, etxebizitzaz, krisiaz, langileen lan baldintzez eta hauteskondeez gogoeta egin du Ezker Batuko zinegotziak.

Aurrekontuak onartu berri dituzue lurretako Udalean. Zelako urtea izango da 2011?

Egoera ekonomikoari egokitutako aurrekontuak dira; udalak aurreko urteetan hasitako beharrak amaitu gura ditu, eta, horregatik, Larrakozelako kenduta ez dago inbertsio handirik.

Hiruzonaldean etxebizitza proiektuak garatzen hasteko asmoa dauka udalak.

Eta ea laster emaitzak ikusten ditugun! Burokraziagatik eta lurak kutsatuta daudelako, atzeratu egin da etxebizitzaren gaia. Hile asko beharko da lurren kutsadura aztertu eta konpontzeko: prozesua ahalik eta arinen joatea gustatuko litzaiguke.

Etxebizitzak eraikitzea da herriko premia handiena?

Ezinbestekoa da. Azken urteotan lursailak topatzeko ahalegin handia egin du udalak. Lantegiak erdigunetik poligonoetara mugitzen dabilta, apurka-apurka. Fundiguelen kasuan, adibidez, herri barruan geratu zen fundi-

zioa kanpora aterata, Maspe kaleko biztanleek leihoa zabaldu eta arnasa hartu dezakete. Auzokideentzat eta enpresarentzat onuragarria izan da.

energia sortzeko. Horrela, ahalik eta arinen aldatuko litzateke lekuz zerrategia, eta Bideondon lurreko kutsadura kendu eta etxeak egingo lirarteke.

emateko; benetan beharrezko diren lanak izan behar dira.

CCOOko kidea zara. Krisi egoera honetan langileen baldintzak hobetzeko motibatuta zaude?

Lantzean behin, erakundeetatik dioskue krisitik irtetzen ari gara, txarrena pasatu dela... baina hori esan diezaiotela EREan urtebete daroan langileari, edo langabezia prestazio barik geratu denari... Enpresa askok EREak larregi erabili dituzte, eta langileetaz baliatu egin dira. Milioiak irabazi eta behar pilo bategaz egon eta bi hilera diru barik geratu direla esan dute batzuek, eta hori beharginetaz aprobetxatzea da. Baikor nago industrian daukagun esperientziagatik; fundizioan, batez ere, oso handia da. Bezeroak laster lehengo eran hurreraten hastea itxaroten dut. Zikloka doa kontu hau. Zera gertatu da: behar ugari egon denean lantegi batzuetan produzitzea baino ez dute izan buruan; eta ez dute teknologian inbertitu. Egoe-

“Zerrategia ahalik eta arinen Larrakozelaira eroatea gura dugu, Bideondon etxeak eraikitzen hasteko”

Kiroldegiko proiektuari heltzeko garaia ezzela-eta, EAJ eta EB ez beste alderdiak abstenitu egin ziren aurrekontuetan.

Duela hamar urte ingurutik bueltaka dabilen gaia da kiroldegiarena. Kiroldegia egitea denok gura dugu; ez dakiguna da zelakoa izango den, zer tamainakoa... Aurrekontu hauetan lurak erosteko atala onartu da, baina ez proiektua bera egiteko. Aurrekontuan onartutakoagaz, Larrakozelain elektrizitate transformazio-zentro bat ipiniko da, eta hori garrantzitsua da. Iberdrolak, udalak eta Bideondoko zerrategiak ordainduko dute zentroa. Etorkizunean, kiroldegirako energia ekoiztuko du, eta, are garrantzitsuagoa dena, beharrezkoa izango da zerrategia Larrakozelai albora joaten denean harentzat

Krisia dela-eta, zer egin dezake udalak herritarrei laguntzeko?

Ezker Batukook beti esan dugu erakunde publikoak direla dirua ipini behar dutenak. Pertsonak ezin badute beharra topatu, eta gobernuak, aldundiek edo udalak ez badute dirua ipintzen herrian hobekuntzak egiteko eta enpresei beharra emateko, krisia ezin da amaitu. Lurretako Udalaren kasuan, ez dago zorpetuta, eta egoera ekonomiko nahiko egonkorra du. Udalak herri-lanetan inbertitu beharko luke estu dabilta enpresei beharko emateko. Erakunde publikoek ezin dute dirua erabili barik eduku. Instituzioek dirua badaukate, eurak dira dirua mugitu eta beharra sortu behar dutenak. Ez dut esan gura aldundiak obra faraoniko bat egin behar duenik jendeari beharra

“Enpresa batzuk langileetaz baliatu dira EREak larregi erabilia”



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera.
Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.





Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Especialitatea: Txuleta errea.



Hotel Lagunetxea

Urkiolako Santutegiaren ondoan
Tel.: 94 465 60 10

Eguneko menua.
Enpresa-bilerak.
Denetariko ospakizunak.
Askariak.

Hemen agertu gura badozu,

DEITU

94 621 79 02

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak

Martxoaren 8a

Martxoaren 8a, zehazki, orain dela 100 urte ospatzen hasi zen. 1910. urteko abuztuaren 27aren ondoren, Kopenhagen, emakumeen eskubideen alde eta emakumezkoen sufragio unibertsala eskatzeko mobilizazio eguna ezarri zuten bigarren Internazionalista Sozialistako emakumeek.

Egun hartatik, mobilizazio mugagabeak egon dira mundu osoan zehar eta garai guztietan; emakume haien elkartzeari esker parekidetasunean oinarritutako mundua eraiki nahi izan zuten, guk gaur ditugun eskubideak gozatu ahal izateko. Gazte askok dohainik emandakoak izan direla pentsatzen dute. Ez da horrela izan. Odola, izerdia, malkoak... eta mesprezuak kostatutakoak izan dira. Hain gazteak ez zarenok gogoan izango duzue orain dela gutxi arte feminista izatea zegoen txarrenaren sinonimoa zela.

Gure aurretik egon diren emakume ausarten kate luzeari jarraituz, durangarrak aurten ere lortutako parekidetasuna aldarrikatzeko elkartu gara, baina oraindik matxismoa gure pentsaera eta bizitzaren errotik ateratzeko lan handia daukagula gogoratu nahi dugu.

Emakumeok orain dela hamarkada batzuk lan merkatura ofizialki sartu ginen arren, gutxien baloratutako lanpostuak eta okerren ordainduta daudenak emakume izatearen baldintzari lotuta daude. Krisi ekonomikoa dela eta, orain inoiz baino gehiago, prekaritateak emakume aurpegia izaten jarraitzen du. Honi guztiari, jazarpen sexualak, bizitza familiarra eta laborala batzeko ordutegi zorrotzak, zuzendaritza lanpostuetan emakumeon gutxiengo... gehitu behar diogu, berdintasunerantz hegaz egiteko, haurtzarotik ezarritako kristalezko teilatu guztiak apurten jarraitu behar dugu.

Indarkeria matxistaren amesgaiztoa ez dugu ahaztu behar, egunetik egunera biktimak eramaten dituelako. Biolentzia hau gazteen artean eta lehenengo harremanetara hedatu da, eta, zoritxarrez, beraiek ere ez dira egoeraz jabetzen, maitasunarekin nahasten dutelako.

Beraz, parekideagoak garelako ospatu dezagun, baina ez dezagun ahaztu guk momentu honetan ditugun eskubideak ez direla mundu mailan XXI. mendeko berezko gauza bat. Oraindik munduko leku txiroetan emakumeak analfabetismora zigortuta daude, neskek prostituzioan oinarritutako bizitza daramate, zentzu gabeko gerretan borxaketek hor diraute, fundamentalismo erlijiosoaren eraginez harrika hiltzea onartuta dago, emakumeek beraien ugalkortasuna ezin dute gestionatu... eta beste hainbat injustizia amaigabe.

Amaitzeko, ospatu dezagun, baina gu baino okerrago dauden emakumeak ahaztu gabe. Gure atzetik etorriko direnei mundu hobe prestatu nahi diegu. Gure aurretik egon diren feministek egin zuten bezala, beraien bizitza literalki ahaleginetan utzita.

Gora Emakumeon Borroka!

Durangoko Plataforma Feminista

Hildakoek bizidunek baino gehiago balio dutenean...

Hori da, hain zuzen ere, Nuestra Señora de Begoña Ehorztetxean gertatzen dena. Eta zergatik? Labur eta argi esanda, hauteskunde sindikaletan LABek delegatua atera duelako. Ez zuten espero, enpresak ez zuen inondik ere espero, baina hala gertatu da.

Orduz geroztik, ardurak dauzkaten pertsonen jarrera guztiz aldatu da; urduri daude. Badakite ezin dutela nahi dutena eta nahi dutenean egin; delegatu bat eta sindikatu bat daudela diru onuren gainetik langileen eskubideak defendatuko dituen. Ez dugu inolaz ere mehatxu eta mendeko kudeaketarik onartuko.

Enpresa honen atzean, Espainiar Estatuko Ehorztetxeen artean garrantzitsuenetakoa den Albia Taldea dago. Eta enpresa horrek, langileen ardura izan beharrean, Madriletik hartzen ditu erabaki guztiak; hemengo enkargatuek eta gerenteak mendeku asmoz izenak mahai gainean jarri eta Madrilo arduradunek kaleratzeak sinatzen dituzte.

LAB sindikatuan, ordea, ez dugu horrelakorik onartuko. Ez dugu mendekuzko kaleratzerik onartuko, ez dugu langileengana erasorik onartuko, eta inondik ere ez dugu gure ekintza sindikala eta gure delegatuaren jarduna oztopatuko duen kudeaketarik onartuko.

Momentu honetan 3 langile kaleratu daude, gerentearen aurkako eraso salaketa bat eta beldurrez gainezka lanean diharduen langile taldea. Eta arazoa gurea dela sinestarazi nahi digute, noski baietz! Arazoa gurea da baina errua zuena!

Behin eta berriro saiatu gara akordioetara iristen; gu izan gara enpresarekin harremanetan jarri eta proposamenak egin ditugunak. Beraiek bai langileei bai guri gezurrak besterik ez dizkigute esan. Orain astebete baino gehiago, zuzenean beraien berri azkeneko izan genuenean, langileak berriro hartzeko asmorik ez zutela esan ziguten.

Beno, guk ere badugu zeresana. Hau konpontzeko bi bide daude, eta beraiek ere hori badakite; batetik, hitz eginda konpontzea, akordioak lortzea gutxiengo hauetan oinarrituta:

1. Langileak lanera itzultzea.
2. Kaleratze traumatiko gehiagorik egongo ez den konpromisoa hartzea.
3. Gure delegatuekiko errespetua.
4. Langile guztiekiko errespetua.
5. Lan sindikalarekiko errespetua.

Oinarri horiekin, aste honetan bertan, gutuna bidali diogu Albia Taldeko administratzailea den Ortuzar jaunari. Argi baitauek akordioa lortzen ez bada beraien borondate faltagatik dela.

Beste aukera, guretzat okerra, noski, hau guztia epaitegietan konpontzea da, jazarpen sindikala legez zigortutako delitua baita. Beraz, erabaki dezatela zer bide hartu nahi duten. Guk argi dugu: langileen eskubideen aldekoa hartu dugu, beraiei zor diegulako; posible bada onean eta hitz eginda, eta bestela epaitegietan lortuko dugu Nuestra Señora de Begoña Ehorztetxean bizidunekiko hildakoekiko baino begirune gehiago!

Durangaldeko LAB

Sei hankako mahaia



Niko Moreno
Ezker Abertzalea

Gurpil madarikatua

Gurpil madarikatu batean egongo baikina, horrela sentitu eta bizi ditut azkeneko asteak. Sortu jaiotzenetik, Estatuko botereek bere ibilbidea oztopatzeko euren ahaleginak suspertu eta euren urduritasuna estali nahian, beste alde batera begira gura gaituzte.

Dela ETaren historia gaitzestea, dela orain atxiloten aurrean derrigorrez azaldu behar dugun neurrigabeko poza, dela etorkizunean izango diren "atentatuak" gaurdunik gaitzestea; unionisten portaerak bestelako xedeak ditu: hemen gatazka politikoa dagoenik ukatzea eta, aldi berean, hura elikatzea.

Historia idatzita dago jada eta izenburu ezaguna dauka: 'Euskal Herria Ezkerretik Lortu Arte'

Baina oso oker dabilta. Herri olatua martxan dago jada, eta euskal preso baldintza duinak exijitzeko eta Sorturen legalizazioaren aldeko mobilizazioek zerbait adierazten badute, euskal jendartearen normaltasun eta askatasun egarria dira, eta bere premia independentziaz abiatzeko. Honen aurrean Estatuak eta bere sustengatzaileek birkokatu beharra daukate, baina zia-boga horretan, behartuta direlako min egiten ahaleginduko dira, eta honetarako daukaten tresneria martxan mantentzen dute: atxilotetak, euroaginduak, tortura basatiak ... eta gezurrak. Euren posizioak apuntalatzeko gezurrak, olatua geratzeko gezurrak, Ezker Abertzalearen proposamena desitxuratzeko gezurrak, euren egia mantentzeko gezurrak. Baina, oraingoan historia idatzita dago jada, eta izenburu ezaguna dauka: "Euskal Herria Ezkerretik Lortu Arte"; eta honek, egun etsai argia baldin badu, hori Estatua da. Bere burua demokratikoa deitzen duena. Hori ere, gezurra.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkartea
2011ko martxoaren 11 - 10. urtea - 407 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar

Administrazioa:

Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde, Aritz Maldonado.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilaria: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

KULTURA

MUSIKA > ELKARRIZKETA



Ibon Urizar

"Are abiadura, indar eta energia gehiago bildu dugu disko berrian"

Amaiera hasieran dator izenburupean, otsail erdialdean kaleratu du **Sermond's** Durangaldeko boskoteak disko berria. Punk-rock doinu are bizkor, indartsu eta probokatzaileagoekin datoz. Gorka gitarristak egin digu lan berriaz zein 2004an lo geratu, 2008an berpiztu eta orain berriro indarberritu den taldeari buruz berba.

Kontzertu askotxo emateko aukera izan duzue azken asteetan...
Elorrion, Eskoriatzan eta Mutrikun jo dugu azkeneko asteburuetan; eta martxoan Leitzaan, Zaldibarran eta Deustun joko dugu, apirilera ere badihardugu kontzertuak lotzen, eta maiatzean Altsasun ere joko dugu.

Horrenbeste zuzeneko eskaintzerako aukera izan duzue beti?
Diskoa orain gutxi sortutako Maukamusik diskoetxeagaz kaleratu dugu, geurea da euren bigarren diskoa; Ratzinger taldearen lehenengo ere euren kaleratu dute. Erdibana finantzatu dugu diskoaren produkzioa, eta eurak ere bada-

"Diskoa orain gutxi sortutako Maukamusik diskoetxe txikiagaz kaleratu dugu"

kite diskoak salduz bakarrik ezin dugula inbertitu duguna berdindu. *Management* agentzia legez funtzionatzen dute, eta kontzertu asko euren lotutakoak dira.

Zelan sortu da diskoetxeagaz jarduteko aukera?

Aurreko diskoa autoproduzitua izan zen; Sermond's berriro elkar-tu eta geneuzkan kantak grabatu genituen asteburu batean. Bigarren diskoa zelakoa izatea gura genuen askoz gehiago pentsatu dugu; kantak zelakoak izango ziren, zer kanta grabatu eta zeintzukez... Diskoetxeak jo zuen geugana, bertako kide bat ezagutzen genuelako: diskoetxeak abiatutako abentura horretan ia sartu gura genuen proposatu ziguten, eta ideia ona iruditu zitzaigun diskoetxe txiki batez jardutea.

"Bigarren diskoa zelakoa izatea gura genuen askoz gehiago pentsatu dugu"

Zelakoa izan da grabazio lana?
Astebeteko lana burutu ahal izan dugu, Karlos Osinagagaz estudio batean. Gero, Jonan Ordorikak masterizatu du. Pribilegio bat izan da guretzat halako grabazio bat egin ahal izatea.

Pisu handia dauka gitarrak zuen kantetan...

Gitarra da disko kanta askoren bihotza, esentzia. Gitarreroa da funtsean, *rock & roll* edo *punk rock* indartsua delako, baina baxuak eta bateriak ere leku handia daukate beti gure taldean, eta ahotsak ere oso oso landuta daude disko honetan. Bigarren eta hirugarren ahotsekin ere jotzen dugu, baina, batez ere, Egoitz abeslariak asko landu du ahots nagusia.

"Letra probokatzaileak eta inguratzen gaituenari buruzkoak uztartu ditugu"

Aurreko diskoan ere asko islatzen zen Sermond's taldearen energia jasotzen du 'Amaiera hasieran dator' honek?

Maketa deitzen dugu askotan lehenengo disko hura, autoproduzitua izan zelako eta baliabide eskasekin egin genuelako, baina taldearen esentzia han ere badago. Lehenengo diskoan jasotako abesti batzuk oraindik ere jotzen jarraitzen dugu. Hura ere Sermond's zen, baina beharbada oraingoa pausu bat gehiago eman dugu.

Letrek ere punk jarrera horregaz zerikusia daukate, probokatzaileak dira batzuk...

Bai. Letrei dagokionez, berdin jarraitzen dugu lan egiten. Bi lerro dauzkagu, ez bakarrik euskara eta ingelesari dagokionez; sei kanta euskaraz, bi ingelesez, eta besteak hizkuntza biak nahastuta egin ditugu. Gaiek ere bi lerro dituzte: letra probokatzaileak edo kutsu rockero hori dutenak egiten ditugu - *Saturday night* kanta esaterako -, baina gure inguruan pasatzen diren gauzei buruz ere kantatzen dugu; AHTari buruz, preso ditugun lagunei buruz... *Irentsi* kanta, esaterako, AHTaren kontrako abesti bat da.

Kanta baten letra egiteko kolaboratzailea ere izan duzue.

Peru Magdalenak idatzi digu *Emakumeak* kantua; "emakumeak pila-tzen zaizkit, emakume gehiegi bizi bakar baterako" dio kantak: oso azkar bizi garela eta parean daukagunaz ez garela ohartzen esaten du letrak. Letrak badauka ikutu probokatzaile hori. Gainerakoak Egoitzek idatzen ditu. ■ I.E.

Intro bat eta hamar kanta, Sermond's-en "rock basatia"



Hamar kanta eta intro bat dira *Amaiera hasieran dator* diskoak, eta hasi eta amaitu riff berdinekin egiten da diskoa. The Hellacopters eta Turbonegro taldeei "omenalditxoak", zenbait keinu egin dizkiete. Diskoaren azaleko tximinoarena, Sermond's-en ezaugarri den "rock basatiaren" ideiatik dator: abiaduratik, indarretik eta energiatik. Ibon Urizar diseinatzaileak diskoarako egin duen lanagaz oso gustora daude.

Durangaldean, ohiko lekuetan dago diskoa 10 euroan salgai, eta Elkar dendetan ere eskuratu daiteke. Diskoen salmentarekin egindako inbertsioa berdintzea dutela asmoa diote, eta ahalik eta merkeen ipini dutela.

LITERATURA > BERBALDIA

'Moroak gara behelaino artean?' liburuaz berbetan agurtuko da Hitz denda

Apirilean itxiko dute Hitz liburudenda, eta "bukaera festa" antolatu dute

Artekale kaleko 14. zenbakian liburudenda zabaldu zutela 37 urte pasatu direnean, arduradunen berbetan, "bizitzako beste etapa berri bati ekiteko", atek itxiko dituzte datorren hil amaieran Hitz liburudendak. Despedida moduan, martxoaren 17an, egue-

nean, liburudendan bertan egingo dute "bukaera festa". Ialau hamarkada bete dituzten urte guztietan bezero eta lagun izandakoak gonbidatu dituzte egueneko ekitaldira, eta editore eta idazle lagun bi ere gonbidatu dituzte literaturaz jarduteko.



PINTURA > ERAKUSKETA

Artistarengan metatutako "tentsioaren deskarga" islatzen duten margolanak

Barikuan inauguratu zuten Susana Alonso donostiarraren *La mancha* erakusketa Durangoko Museoan, eta martxoan zehar egongo da ikusgai

Formatu handiko koadroak dira Susana Alonso donostiarrak Durangoko Arte eta Historia Museoan *La mancha* izeneko erakusketa osatzeko ekarri dituenak: altueran 160 eta zabalera 130 zentimetro neurtzen dute Museoan paratu dituztenetariko zenbait artelanek, eta tamaina txikiagoko koadro multzoak ere badaude ikusgai.

Joan zen barikuan inauguratu zuten erakusketa, eta martxo amaierara arte egongo da Durangoko Arte eta Historia Museoaren lehenengo solairuan bisitagai.

Pigmentuak, erretxina eta ura dira koadroak osatzeko Alonsok baliatutako materialak, eta papera euskarria. Pintura zuriaz eta beltzagaz jokatu batzuk, eta lur koloreekin osatutakoak dira beste zenbait lan.

Paperaren gaineko ekintza, Beltza, Beharbada elurra, Kolorea eta Zuria dira, esaterako, erakusketako Alonsoren koadroen izenburuetako batzuk.

"Barreneko bihozkada bat gauzatzetik" sortzen ditu margolariak bere koadroak

Paperaren gaineko ekintza izenean ageri denez, ekintza da pintore honen lanaren ezaugarri nagusietako bat; berehalakotasuna eta inpaktua adierazten duten irudiak dira erakusketakoak. Autoreak erakusketarako

Pamiela argitaletzeko Iñigo Aranbarri editorea eta Jose Angel Irigarai idazlea gonbidatu dituzte Hitz liburudendaren despedidarako. Joseba Sarrionandia iurretarraren *Moroak gara behelaino artean?* liburuaren inguruko jarduna antolatu dute eguen iluntzeko hitzordurako. Sarrionandiaren lana sakon ezagutzen duten Irigarai eta Aranbarri izango dira, beraz, berbalagun.


Arduradunek asteon adierazi dutenez, apiril amaierarako ipini dute denda behin betiko itxeko data, eta horregatik eguenerako antolatu dutena "bukaera festa ona" izatea da daukaten asmoa. "Urte guztietako lanari amaiera polita eman gura diogure bezero izan zaretenon omenez", jakinarazi dute liburutegiaren arduradunek.

Sarrionandiaren liburuaren gaineko berbaldia eta luntxa antolatu dituzte Hitz

Joseba Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean?* gogoeta liburuaren inguruan antolatu duten aurkezpen-berbaldian parte hartzera gonbidatu dituzte Durangoko eta Durangaldeko literaturazale guztiak, urteotan bilgune izan duten liburudendaren despedidara: martxoaren 17an, 19.30ean, ipini dute hitzordua, eta luntxa eskainiko dute berbaldiaren ondoren. ■ I.E.

prestatutako informazio orrian esaten denez, sorkuntza prozesua ere halakoxea burutzen du egileak: erreflexioan barik, ekintzan oinarritzen da bere lana, Susana Alonsok azaldu duenez; esperimentatzean, probak egitean, koloreekin eta testuarekin jolastean joaten da artelana sortzen.

Alonsoren koadroak "ez dira adimenaren edo ezagutzaren prozesutik abiatuta eraikitzen, barreneko bihozkada bat gauzatzetik baizik. *La mancha* erakusketaren eskuorrian adierazten denez, "artistarengan metatutako tentsioaren deskarga da" koadroa. Abstraktuak diren emozioak, ametsak eta grinak, koadroetan ere abstrakzioen bitartez adierazten ditu Alonsok. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA



Jose Luis Lizundia Euskaltzaina

C. Abaitua berriztarra

Arabian argitaratzen diren egunkari bietatik jakin behar izan dugu Berrizko seme ospetsu bat hil berri dela: Carlos Abaitua Lazpita abade jauna. 1921 urtean jaio zen; deitura biek ere Berrizko jatorria adierazten dute. Pasa den otsailaren 13an hil da Gasteizen.

1946an apaiztu zen orduko hiru probintzietako elizbarruti bakarrean, Gasteizkoan, alegia, eta Teologian doktoratu 1964an, lan bikain batekin: *Leon XIII magisteritza, askatasun politikoarekin dotrina*, Comillasko unibertsitatean, hain zuzen. Jubilatuta Gasteizko Teologia Fakultatean irakasle famatua. Idazlan askoren egilea, bere biógrafo Jose Ignacio Callejak bat nabarmendu du: "*La doctrina católica sobre la propiedad privada en dos momentos claves de la tradición cristiana*". Rikardo Alberdi, Rafael Belda eta Jose Maria Setienek gogaide izan omen zen demokrazia politiko eta justizia sozialean, eta lankide irakas-kuntzan, Callejari irakurri diogunez.

Teologo eta pentsalariaz gain, pastoralgintza sozialaz, ez bakarrik maila teorikoan, baizik eta konprometitan ere kezkatu zen; hala nola Gasteizko Adurtza eta Errekaleor auzoetan, bereziki etorkinekin, zeintzuetan langileentzako etxebizitzak sustatzen aritu zen. Eskola Sozialen sortzaileetarikoa ere izan zen, eta hor ezagutu eta lankide izan zuen Jose Angel Cuerda alkate ohia, beste arabar politiko eta sindikalista ezagun askoren artean.

Pertsonalki ez nuen ezagutzen, nahiz eta bere lanen eta osparen berri izan, bai Henrike Knörr gasteiztar euskaltzainarengandik bai zenbait berriztarrengandik ere. Uste izan dut Anboto astekari honen bidez, Carlos Abaituaren heriotzaren albiste izatea onuragarria izango dela bere herriarrentzat, eta baita Durangaldeko enparauentzat ere. Hiriburuko gizartean hain errotua eta aitortua izan arren, Berrizko seme argi honek bere herriaren aitormena ere merezi duelakoan gogoan.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

MARTXOAK 11 22:00etan KONTZERTUA. 12-15€ DINERO + OVNI + GRISES.

MARTXOAK 12 HERRI URRATSEN ALDEKO JAIALDIA
12:30 Ardo dastaketa-3€/ 14:00 Bertso bazkaria-20€
18:30 Pirritx eta Porrotx-6€

MARTXOAK 13 17:30ean UMEENTZAKO ANTZERKIA. 3€ TXOLO HEGALARI TONTOLO

MARTXOAK 17 21:00ean 1. FINAL ERDIA. Doan. ROCK IZAR ESKOLAKO MAKETA LEHIAKETA

MARTXOAK 18 20:30ean BIZKAIKO FINALA. Doan. BAKARRIZKETA LEHIAKETA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

www.plateruena.net

TENGAMOS EL SEXO EN PAZ
eme2 (Galizia)

Martxoak 13 • 19:00

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

11.94 601 07 76 Artekale, 14 DURANGO

HITZ

Liburudenda

ANTZERKIA > EMANALDIAK

Umeentzako hiru antzezlan Abadiñoako I. Antzerki Jaialdian

Martxo amaierarako antolatu dute Traña-Matienako Errota kultur etxeako antzerki jaialdia



Markeliñeren *Uharte ezezaguna*, martxoaren 20an.



El retrete de Dorian Gray galiziarren *Rúa aire*, martxoaren 27an.

Haurrei eskainitakoa izango da Abadiñoako Udalean aurten lehenengoz antolatu duten Antzerki Erakustaldia. Udaletik jakinarazi dutenez, Traña-Matienako Errota kultur etxean izango dira jaialdiko hiru emanaldiak, martxoaren 20 eta 27an, eta apirilaren 3an.

Dagoeneko umeentzako pentsatu eta ekoiztutako ikuskizunen alorrean ezagun eta entzutetsu diren eta egiaztatutako kalitateko lanak burutzen dituzten hiru konpainiek konfirmatu dute jaialdian parte hartuko dutela: Zornotzako Markeliñek, Abadiñoako Gorakadak eta Galiziako El retrete de Dorian Gray konpainiek aurkeztuko dituzte euren lanak Abadiñoako kultur etxean. Azkeneko urteetan ekoizti dituzten lanak aurkeztuko dituzte Errotako oholtzan.

Zornotzako Markeliñe eta Abadiñoako Gorakadaren lanak, besteak beste

Antzerki jaialdia aurkezteko udalak zabalduko informazioaren arabera, euro bateko prezioan salduko dituzte sarrerak.

Markeliñe konpainiaren azkeneko antzezlanagaz emango diote Errota kultur etxeako jaialdiari, martxoaren 20an, 18:00etan hasiera: *Uharte ezezaguna* obra eskainiko du konpainia zornotzarrak. Jose Saramago idazleak 1998an kaleratutako *O conto da ilha desconhecida* ipuinean oinarrituta Markeliñe antzerki taldeak 2010ean moldatu zuen obra da.

Arte eszenikoetarako zaletasuna sustatu gura dute umeen artean

Uharte ezezagun bat helmuga duen bidaia abiatzen duten hiru lagunentzako abentura eta erronkak kontatzen dituen Markeliñeren lanaren ondoren, hilaren 27an, antzerki bisual eta fisikoa jorrotzen duen El retrete de Dorian Gray talde galiziarren *Rúa Aire* obra izango da Errotan ikusgai.

Apirilaren 3an, umeentzako antzerkigintzako nazioarteko saria jaso berri duen Gorakada taldearen emanaldiagaz amaituko da jaialdia: FETEN sariaren aitortza jaso duen *Ogro txikia* lana oholtzaratuko du Gorakadak.

“Txikiengandako arte eszenikoetarako zaletasuna sustatzea inportantea da”, nabarmendu du Vázquez kultur zinegotziak: horixe du jaialdiak jomuga. ■ I.E.



Gorakada konpainiaren *Ogro txikia*, apirilaren 3an.

MUSIKA > MAKETA LEHIAKETA

Martxoaren 24an eta 31n Durangoko Plateruenean jokatuko dituzte Rock Izar eskolaren lehenengoz antolatu duen maketa lehiaketaren finalurreko biak. Durangaldek, Euskal Herriko beste hainbat lekutatik, eta, besteak beste, Madril, Katalunia eta Andaluziatik ere Rock Izar eskolan jaso dituzten proposamenetatik, lehiaketaren zuzenekoetan jardun eta lehiaketaren saria eskuratu ahal izateko aukera izango duten zortzi taldeak aukeratu dituzte.

Rock klasikoa jorrotzen duen Malagako Oceans izeneko taldeak, rock gogorra egiten duen Mungialdeko Arrakada taldeak eta pop doinuak eskaintzera Madrildik etorriko den Nunca Digas Nunca taldeak joko dute finalurrekoetan, eta baita Durangaldek hiru taldek ere: Raxfer eta Ymotek metaleroek eta folk-rock ikutuko musika egiten duen Doktors Klub taldeak ere Plateruenean izango dira.

Katalunia, Madril eta Andaluziatik ere jaso dituzte proposamenak

Platerueneko zuzenekoetan joko duten zortzi taldeen artetik hautatuko du epamahiak zer lau taldek egingo duten lehiaketan aurrera, eta apirilaren 1ean Durangoko Plateruenean burutuko duten finalean euren lana berriro eskaini ahal izango dute.

Hainbat sari daude Rock Izar eskolaren maketa lehiaketan: estudioan grabaketa egingo dute epamahiak lehenengo eta bigarren

Zortzi talde Rock Izar eskolaren maketa lehiaketaren zuzenekoetan

Durangaldek Raxfer, Ymotek eta Doktors Klub dira finalurrekoetarako sailkatu diren hiru

hautatzen dituen taldeek, Durangoko talderik onenarentzako saria ere badago, eta Rock Izar diskotxeagaz kontratu diskografikoa egiteko aukera ere badago lehiaketan jokoan, zortzi taldeetako edozeinek jaso ahal izango duena.

Beste hainbat helburugaz batera, musikan aniztasuna sustatzeko helburuagaz ere antolatu

Plateruenean izango dira finalurreko biak, martxoaren 24 eta 31n

duela lehiaketa eta jaso dituzten proposamenetan “nahi beste aniztasun ez” dutela topatu aitortu dute Rock Izar eskolako ardura-dunek; gauza oso interesgarriak iritsi zaizkien arren, musika egiteko moduetan barietate gutxi nabari dutela: metal estiloa jorrotzen duten taldeen proposamenak izan ei dira jasotako gehienak. ■ I.E.



Udazkenean Danbakan parte hartu zuen Ymotek talde abadiñoarra ere finalurrekoetan dago.

LEHIAKETA >

Euskalaketa bakarrizketa lehiaketaren Bizkaiko finala

Martxoaren 18an, datorren bari-kuan, 20:30ean hasita, Durangoko Plateruenean burutuko dute Euskalaketa bakarrizketa lehiaketaren Bizkaiko finala. Doako sarrera izango du.

Korrika 17-k antolatutako ekimena da Euskalaketa bakarrizketa lehiaketa: apirilaren 7tik 17a arte Euskal Herria zeharkatuko duen Korrikaren 17. edizio-rako AEK-k antolatu dituen ekimenetarikoa bat da aurten lehenengo edizioa duen Euskalaketa bakarrizketa lehiaketa hau.

Martxoaren 18an, Plateruenak hartuko du Bizkaiko finala

Korrikaren amaieragaz bat eginda, apirilaren 17an, Donostian jokatuko duten finalaren aurreko herrialdekako finalerako bat da Durangoko Plateruenean hartuko duena: Bizkaikoa.

Ariketa bi egin beharko dituzte parte-hartzaileek euren bakarrizketan: bakoitzak gai libreko zortzi minutuko bakarrizketa egingo du lehenengo, eta ‘euskalakari’ berbaren inguruko bost minutuko ondoren.

Antzerkizale Elkarteak izendaturiko epamahi batek jardungo du parte-hartzaileen jarduna baloratzen. ■ I.E.



2012ko egutegiaren argazki lehiaketa

hartu egizu parte!



Oinarriak: **anboto.org**

Sartu gure bilatzailean "egutegi lehiaketa" berbak

12 hile 12 herri

KIROLAK >

“61 puntuena amaitu eta gero jakin nuen; kostatu zitzaidan sinesten!”



Hiru urtez Adecco Plata mailan lehiatu da orain Zornotzan dabilen Ibon Carreto gaztea.

Ibon Carretoren aurtengo zenbakiak errekorra egitekoak dira. Otsaileko partidu batean 61 puntuko balorazioa lortu zuen. ACBko errekorra 66 puntuan dago; meritu handia du, beraz, durangarrak eginikoak.

Lortzen zabiltzan zenbakiak errekorrekoak dira. Urte hasieran horrela ibiltzea itxaroten zenuen? Ez nuen itxaroten, ez. Nire asmoa urte hau ez galtzea eta saskibaloian gustura ibiltzea zen. Hasieratik nigan konfiantza osoa izan duen talde batean nabil, eta horrek eragina dauka. Taldeko giro onak ere asko lagundu dit.

61 puntuko balorazioa lortu zenuen otsaileko partidu batean. Zelan sentitzen zara?

Nik ez dut sekula horrelakorik ikusi. Partida amaitu eta segituan esan zidaten, eta guztiz harrিতa geratu nintzen. Estatistika zalea den lagun batek esan zidan: “Aizu, 61eko balorazioa duzu!”. Hasieran ez nuen sinetsi, baina, gero konturatu nintzen horrelaxe zela.

Zelan erabaki zenuen Zornotzara joatea?

Krisiak saskibaloian ere eragin du, eta asko jaitsi da dena; batez ere, arlo ekonomikoan. Gaur egun, eskaintza batek oso ona

izan behar du, bestela, hementik irtenez gero, dirua galtzen duzu.

Lehenengo urtea duzu Zornotzan. Zelan hartu zaituzte?

Primeran. Mundu guztia esker onekoa izan da; elkarrenganako sentimendua izan dela pentsatzen dut. Urtea hutsean ez pasatzeko aukera eskaini zidaten, eta nik aprobetxatu egin dut.

Erabakia hartzerakoan, eragin zuen entrenatzailea Unai Zamalloa izateak? Ezagutzen zenuen?

Bai. Lehenagotik ezagutzen dut. Tabirakon jokatzeko nuen garaitik; edozelan ere, zuzeneko hartu-emanik ez dugu izan. Mikel Garita, bigarren entrenatzailea, laguna dut. Giroa aparta da, eta horrek eragina du, noski.

Aldaketa handia igarri duzu iaztik hona?

Bai. Caja Riojak, adibidez, igotzeko jokatzeko du; hara rol bategaz zoaz, eta hori onartu beharra duzu. Zu seigarren gizona zara;

aulkian itxaroten duzu, eta kantraraten zarenean ordezkatu duzuna baino hobeto jokatu behar duzu, jokoaren intentsitatea mantentzeko. Prestatzeko modua ere ezberdina da. Goiz eta arratsalde entrenatzen duzu; hura lan baten modukoa da.

Zornotzan, ostera, minutu gehiago jokatzeko aukera dut, eta hutsegiteek ez dute hainbesteko eragina. Horrela, konfiantza hartzen duzu, eta arreta jokoan bakarrik jartzen duzu.

Eta EBA maila asko aldatu da?

Nik uste dut EBako maila igo egin dela. Zilarrezko LEBen ibili garen jokalaria asko ekiporik barik geratu gara; batzuk maila horretan geratu dira, eta beste batzuk EBAr jaitsi gara. Ez dakit hau beste taldeetan ere igarri den, baina gurean (A-A taldea) sekulako maila dago orain. Egia da talde batzuk taloitziagaz egiten dutela aurrera, eta hori igartzen da. Meritu han-

« Orain minutu gehiago jokatzeko ditut. Konfiantza hartzen laguntzen du horrek »»

IBON CARRETO

Jaioterria

Durango

Adina

1984/08/1

Ibilbidea

2002 (Behoko mailak)

- Tabirako.

2002-2005 (1.mailan)

- Tabirako

2005-2006 (EBA mailan)

- Atletico SS.

2006-2007 (EBA mailan)

- CB Sarria

2007-2010 (Zilarrezko LEB)

- CB Clavijo

2010-2011 (EBA mailan)

- Zornotza ST.

dia dute harrobiko jokalariekin jokatzeko duten taldeek.

Lehenengo urtea du Zornotzak EBA mailan. Zelan ikusten duzu taldea?

Helburua oraindik ez dugu lortu; matematikoki, behintzat. Gertzen diren partiduetan irabaztera derrigorturik gaude; mailari eusteko puntu horiek behar ditugu, eta play-off fasea jokatzeko ere bai. Hiru final ditugu aurretik, beraz.

Bestalde, taldeak jauzi kualitatibo handia eman duela iruditzen zait. Zuzendaritzak eta teknikoen ere lan handia egin dute. Balioetsi beharreko lan handia da hori. Jokalariok, azken finean, jokatzera mugatzen gara.

Harrobi izan zenuen Tabirakok maila galdu du. Zer sentitu duzu?

Irabazi dituen hiru partiduetako bi guri irabazi dizkigute; askotan pentsatu dugu non geundkeen bi partidu horiek irabaziz gero. Batek daki. Beste bi galduko genituen, behar bada. Poztu ez nau egin, behintzat.

Zelakoa izan da urteotako esperientzia?

Lehenengo jauzia ez zen hain handia izan, Donostiako Atletiko SS taldera joan nintzen. Urte horretan mailaz igo ginen. Ostean, Galiziara joan nintzen, Sarriara. Azken hiru urteetan Logroñon egon naiz. Ez naiz damutzen, urteotako momentu onak gozatu ditut, eta akatsetatik ikasi egin dut

Zilarrezko LEBera itzultzeko asmorik?

Lehenengo kontaktuak egon dira, baina oraindik ez dago ezer. Egindako denboraldiaren ondoren, udan zeozer mugituko den itxaropena daukat. ■ A.M.

IV. Anboto Kilometro Bertikala urrian jokatzeko dute

Laugarren Anboto Kilometro Bertikala urriko lehenengo egunean ospatuko da. Bigarren urtez jarraian, proba hau Espainiako Koparako puntuagarria izango da. Horrez gainera, Anbotoko proba irabazten duena Lasterketa Bertikalen I. Euskal Txapelketako garaile ere izendatuko dute.

Arlo ekonomikoari dagokionez, antolatzaileek 10.000 euro banatuko dituzte sarietan. Gainera, 4.edizio honetako parte-hartzaile guztiei opari bana egiteko asmoa agertu dute antolatzaileek. Izena emateko epea maiatzaren batean hasiko da. ■ A.M.

Berasaluzer bizirik heldu da azken jardunaldira

Binakako Txapelketako ligaxka azkeneko txanpara heldu da; azkeneko jardunaldia gertzen da bakarrik jokatzeko. Berasaluzer VIII.a eta Apraiz aurrera egiteko aukeragaz heldu dira hona. Oraingo, bikote bakarra dago sailkatuta; Xalax eta Barriolak osatzen dutena, hain zuzen ere. Bizkaitarrek finalerdietan sartzeko aukera daukate, baina, oso gaitza izango da: hurrengo partiduan Gonzalez-Laskurain bikotearen kontra irabaztera derrigortuta daude; 15 tantoko aldeagaz irabazi behar dute, gainera. Horrez gainera, Irujo-Merino II.a eta Titin III.a-Pascual bikoteek euren partiduetan galdu behar dituzte. ■ A.M.

Bizkaiko taldekako azken jardunaldia

Xakeko Bizkaiko taldekako azken jardunaldia jokatzeko dute asteburu honetan. Goren mailan, Abadiño Santurtziren aurka lehiatuko da; bigarren eta hirugarren sailkatuak dira, hurrenez hurren, partida lehiatua izango da, beraz. Larrasoletak, ostera, Portugaleten liderraren aurka lehiatu behar du. Durangarrak bederatzi garren daude.

Lehen mailan ere azken jardunaldia jokatzeko dute. Zaldi Baltzako elorriarrek Barakaldoren aurka jokatu behar du. Zaldi Baltza 4.postuan dago sailkapenean. ■ A.M.

Denboraldi bakarra iraundu Tabirakoren ametsak

Hiru jardunaldi falta dira 2010-2011 denboraldia amaitzeko. EBA maila ahalik eta modu onenean agurtzen saiatuko dira durangarrak



Azken partiduetan ahalik eta itxura onena ematen saiatuko dira De Castroren mutilak. K.Aginako

Denboraldia amaitzeko hiru jardunaldi falta direla, EBA mailari eusteko aukerarik barik geratu da Tabirako. Urte gaitza izango zela jakitun ziren arren, Tomas De Castro entranatzailearen berbetan "nahiko izorratu" daude guztiak. Joan den jardunaldian Deportes Ferrer taldearen aurka 60-70 galdu ondoren, mailari eusteko aukera guztiak galdu zituzten durangarrek.

Iaz igoera lortu eta gero, Tabirakok EBA mailan jokatu duen lehenengo denboraldia izan da aurtengoa. Hasiara ona izan bazuten ere, partidua jokatu ahala durangarrek atzera egin dute sailkapenean. Entrenatzailearen ustez, urte "korapilotsua" izan da. "EBAn maila oso ona dago, eta guk ez dugu lortu maila horretara heltzea". Horrez gain, denboraldian zehar izandako bajek ere eragina izan dute. "Ondo jokaturiko partidu batzuk galdu egin ditugu; horrek uzkuritu egin gaitu". Jokalari batzuek taldea utzi dute, eta

De Castro: "Ahalik eta itxura onena eskainiz agurtuko dugu maila"

Hiru garaipen lortu ditu Tabirakok, horietako bi Zornotzaren aurka

horrez gain, denboraldian zehar hainbat jokalarik min hartu du.

Geratzen diren hiru jardunaldietarako, Tabirakok ez du ezer jokoan. Hala ere, De Castroren esanetan partiduetara irabazteko asmoagaz joango dira. "Maila honetan jokatu ditugun azken partidua izango

dira, eta ahalik eta itxura onena eskaini gura dugu". EBA maila ahalik eta txukunen agurtzen ahaleginduko dira, beraz.

Hala ere, denboraldia amaitzeko geratzen zaizkien hiru partidu horietako bi "oso gaitzak" izango direla aurreratu du Tabirakoko entrenatzaileak. Domekan Zamoran jokatu dute durangarrek, sailkapenean bigarren postuan dagoen Fidalgo Vecinoren aurka. Ondoren, hirugarren dagoen Ventanas Arsan taldea hartuko dute durangarrek Landakon. Azkeneko partidu Burgoson kontra jokatu dute. Tabirakogaz batera, zuloan dago Burgos, hortaz, denboraldia garaipen batez amaitzeko aukera izango dute durangarrek.

Datorren urtera begira aldaketak egongo direlakoan dago De Castro: "Hauteskundeak egingo dira orain, eta segurutik aldaketak egongo dira zuzendaritzan. Oraindik ez dakigu asko, hala ere". Iaz 50 urte bete zituen Tabirakok. ■ A.M.

Praderak eta Saezek txapelari eutsi diote

Euskal Herriko Gomazko Paleta txapelketan 30-20 gailendu ziren, Zarauzko finalean

Itxaso Pradera mallabitarrak eta Laura Saezek iazko txapela berretsi dute. Euskal Herriko Gomazko Paleta Txapelketako finalean 30-20 irabazi zioten Irazustabarrena eta Arrieta hernaniarrek osaturiko bikoteari. Finala Zarautzen jokatu zen, martxoaren bostean. Gipuzkoa-

Bi final horiek telebistan eskaini zituzten, lehenengoz

rrak gogoz saiatu ziren arren, ezin izan zituzten Pradera eta Saez mendean hartu. Jokalari ikusgarrienak Irazustabarrena egin arren, Saezen defentsa zurrunka eta Praderaren kolpeek txapela Bizkaia aldera ekarri zuten. Aurrerantzean kontuan hartu beharreko bikotea dela erakutsi zuten hernaniarrek.

Egun berean bigarren mailako finala ere jokatu zen. Bertan, E. Pagola-Huizi eta Perera-Ansotegi bikoteak lehiatu ziren. Lehenengoz jantzi zuten txapela, 30-20 irabazita. Bi final hauek telebistan eskaini zituzten, lehenengoz. ■ A.M.

Iker Saenz de la Cuesta
• Areto futbol entrenatzailea



Talde zaharberritzea

Kirolak beti izan ditu bidaide jokalarien lesioak, eta zergatia edo konponbidea sarritan ezagutu arren, kostatu egiten zaigu horren ondorioz datozen arazoak konpontzea; taldeak desageretzea, adibidez.

Horren aurka lan asko eginda ere, inor ez dago zorigaitz horretatik salbu; azken urteetan, Durangaldeko taldeek hainbat jokalarik izandako lesioei aurre egin behar izan diete. Lesio horien zergatia edo konponbidea ezberdinak dira; aipatzekoak dira jokalarien zahartzea, prepartazio fisiko on baten gabezia, lesioen prebentzio neurriak edo kirol honek fisikoki duen eskakizuna bera.

Nabaria da taldeak gaztetzeko beharra; hori lortzea gaitza da, ostera. Umeak "futbitoan" hasi arren, urteekin futbolera egin "behar" dute jautzia; gure kirolak ez du oraindik umeen aldeko apustua egin (sekulakoa litzateke klub bat kadeteetatik lanean hastea).

Areto futbola gaztetatik landuz gero, prepartazio fisiko eta lesioen prebentzio neurriak hobetuko lirateke, eta taldeek ez lukete hainbeste arazo izango jokalariek erretiratzekoan.

Aurten, hasi dira jubentil mailan taldeak sortzen. Oraindik urrats ugari geratzen dira emateko. Helburua ez da arautegia betetzea soilik, kirol hezkuntza eta prestakuntza egitea baizik.

Hilabete erabakigarria Elorrioko neskenentzat

Martxoko lau partiduetan sailkapenean goian dauden taldeen kontra jokatu dute

Bigarren mailako liderrak dira Elorrioko neskek, 51 puntuz. Martxo hile erabakiorra izango da, ordea, lidergo horri eutsi ahal izateko. Hileko lau partiduetan lehiakide zuzenen aurka arituko dira. Martxo amaierara etxerako lanak eginda iristea garrantzitsua izango da; hileko azken asteburuan, Peña Athletic Sestaoarra bigarren sailkatua hartuko dute Eleizalden. Hileko lehenengo finalean, elorriarrek 0-1 irabazi zioten San-

tuxuri. Domekan, berriz, Bizkerre B taldea hartuko dute etxean. 25. jardunaldian, Berri Otxoa B taldearen kontra jokatu beharko dute; hirugarren daude sailkapenean. ■ A.M.

Domeka honetan Bizkerre B taldea hartuko dute Eleizalden



Sendo dabilta Elorrioko neskek. Juanra De La Cruz

Denboraldi amaierara konfiantzaz eta sasoi betean heldu da Kulturala

Sailkapeneko 4. postuan dago Kulturala. Horrela amaituz gero, igoerako play off-a jokatuko lukete durangarrek. Lorturiko emaitzak eta taldearen joko ona nabarmendu ditu Intxaurragak



Pozik dago Intxaurraga entrenatzailea taldeko jokalariek egiten ari diren denboraldiagaz. Kepa Aginako

Denboraldia amaitzeko hamar partidu geratzen direla, Kulturala helburuak lortzeko bidean dago. Hamar jardunaldiren faltan, play off postuetan dago orain, eta 8 puntuko koltxoia dauka, gainera. Axier Intxaurraga entrenatzailearen berbetan, talde durangarra egiten dabilen denboraldia ona da. "Liga hasi denetik goiko postuetan egon gara beti, eta horrek konfiantza eman digu". Emaitza onak lortzeaz gainera, Kulturalak denboraldi osoan zehar eskaini duen joko ona izan da.

Asteburu honetan 29. jardunaldia jokatuko da 3.mailan. Kulturalak bihar jokatuko du, Zarautzen aurka. Talde gipuzkoarra beheko postuetan dago, baina, hala ere partidu gaitza izango dela uste du Intxaurragak. "Behean daude, eta puntu horiek beharrezko dituzte. Etxean ondo moldatzen dira, gaine-

Hurrengo aurkari diren zarautzarrak behean daude, eta beharrezko dituzte hiru puntuak

Galtzen hasi arren, buelta emateko kapaz izan ziren Kulturalako jokalariek

ra". Kulturalaren entretzailearen ustez, bere jokalariek kontu handia izan beharko dute aurreko postuetako jokalariekin; "aurrekoak oso azkarrak dira".

Zarautzen kontra jokatzeo, Intxaurragak ezingo ditu jokalariek guztiak zelairatu, batzuk min hartuta dituelako; tartean, Xabier Nieto edo Jon Conde.

Gol festa Tabiran

Azkeneko jardunaldian hiru puntuak Tabiran geratzea lortu zuen Kulturalak; 4-2 irabazi zion Eibar Bri. Hasieratik maldan gora jarri zitzaizen partidua durangarrei, baina buelta eman ahal izan zioten. Intxaurragaren berbetan, "oso ondo" erantzun zuten jokalariek. Eibartarrek lehenengo minutuan sartu zuten 0-1eko. Hala ere, bosgarren minutuan banakoa sartu zuen Kulturalak; 4-1 jarri ziren aurretik durangarrek. Azkenean, 4-2 amaitu zen

norgehiagoka. Kulturalako gole-gileak Ander Pinilla, Eneko Gorroño eta Mikel Muniozguren (2) izan ziren. Intxaurragak jokalariek markagailuari buelta ematea lortu izana azpimarratu gura du. "Gol gehiago sartzeko aukera izan genuen, gainera".

Eibartarren kontra hiru puntu irabazi ondoren, 4. postuan dago Kulturala, 55 puntugaz; 55 puntu ditu Zornotzak ere. Bigarren sailkatua, Laudio, bi puntura daukate, eta Sestao liderra, berriz, 5 puntura. ■ A.M.

Play off postuetan dago talde durangarra, eta 8 puntuko tarte erosoak daukate, gainera

Aldaketak egon dira Biharko Izarrak lehia

Linzoain eta Yoldi nafarrek ez dute parte hartuko. Albaradok, berriz, jokatu egingo du

Mallabiko Biharko Izarrak txapelketan aldaketak egon dira. Linzoain eta Yoldi nafarrek ez dute jokatuko. Euren ordez, Ojuel aurrelaria eta Zubiri atzelaria arituko dira. Bestalde, lehenengo partiduetan huts egin ondoren, txapelketara itzuliko da Albarado. Carlos Garcia antolatzailaren berbetan, Albarado

Garcia: "Ikusleen erantzuna primerakoa izan da orain arte"

Euskal Ligan lehiatzen aritu da, eta horregatik atzeratu da bere debuta. Bere ordez Juananea eta Urionak jokatu dute.

Bestalde, txapelketari dagokionez, pozik agertu da Garcia: "Ikusleek primeran erantzun dute". Bere berbetan, lehenengo partiduan 150 pertsona egon ziren pilotalekuan, eta ondorengoetan 80-90 inguru egon dira. "Afizionatu maila baterako oso ongi dago hori", dio Garcia.

Atzo, martxoaren 10ean, laugarren jardunaldiko partiduak ziren jokatzeoak: Uriona-Zubiria /Ansotegi-Telletea lehenengo, eta Elezkano-Irusta/Victor-Lukin ondoren. ■ A.M.

Beterano arteko hiruko torneooa jokatuko da bihar

DRTko beteranoekin batera, Mungia eta Arrasateko errugbi taldeek jokatuko dute

Bihar, arratsaldeko 18:00tan hasita, hiruko torneooa jokatuko dute DRT, Mungia eta Arrasateko beteranoen errugbi taldeek. Arripausuetan izango dira partiduak. Iaz antzeko txapelketa bat jokatu zuten Arrasaten, eta DRTkoek irabazi zuten; horrelakoetan giro ona izaten da nagusi, hala ere.

Bestalde, Sukia errugbi eskolako bi taldek Madrilgo V. Nazioarteko Txapelketan parte hartu zuten. Talde horietako bat kimuek (14 urtez azpikoak) osatu zuten; bestea, ostera, benjaminiek (12 urtez behekoak). Ohar batean azaldukoaren arabera, bertan bizitako giroa "aparta" izan zen. ■ A.M.

Agenda

FUTBOLA

LEHENENGO ERREGIONALA

Iurretako - Gazteluzarra

Zapatuan, 17:00etan,

Larrako-zelain

LEHENENGO ERREGIONALA

(emakumeak)

Iurretako - Berango

Domekan, 16:30ean,

Larrakozelain

BIGARREN ERREGIONALA

(emakumeak)

Elorrio - Bizkerre B

Zapatuan, 16:00etan,

Eleizalden

SASKIBALOA

LEHENENGO AUTONOMIKA

(emakumeak)

Tabirako - Gernika

Zapatuan, 17:00etan,

Landakon

LEHENENGO ERREGIONAL

BEREZIA

Tabirako - Askartza

Zapatuan, 19:00etan,

Landako

LEHENENGO ERREGIONALA

Anbotopeko - Paules

Zapatuan, 18:00etan,

Tabiran

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL A MAILA

Sasikoa - Burgos

Domekan, 12:00etan,

Landakon

NAZIONAL B MAILA

Elorrioko Buskantza -

Buruntza

Domekan, 12:00etan,

Elorrioko kiroldegian

EUSKAL LIGA

Kurutziaga - Santurtzi

Zapatuan, 17:30ean,

Landakon

GOREN MAILA

Presion Break -

Askartza

Zapatuan, 16:30etan,

Berrizburu kiroldegian

PILOTA

BIHARKO IZARRAK

- Ansotegi - Untoria /

Azpiri - Olalde

- Ojuel - Landaburu /

Antxotegi - Castillo

Eguenean, 21:30etan,

Mallabiko pilotalekuan

ERRUGBIA

BETERANOEN HIRUKO

TORNEOA

DRT-Mungia-Arrasate

Zapatuan, 18:00etan,

Arripausuetan

laguntzaileak



ABADIÑOKO UDALA



ATXONDOKO UDALA



DURANGOKO UDALA




ELORRIOKO UDALA



MALLABIKO UDALA

LAUHANKA[>]



Oso garrantzitsua da dortoka berriari buruz ahal den informazioa biltzea

Uraren kalitate txarra izango da dortoka gaixotzeko arrazoi nagusia

Dortoka gaixotzen bada, hainbat sintoma garatu ditzake

Dortoka: maskota estimatua baina gaixotzeko arrisku handia duena

Arrakasta handiko animalia da etxeetan dortoka. Ez du lan larregirik ematen, eta gainera espazio gutxi okupatzen du etxean. Bere alde negatiboa ere badu, edozelan, dortokak: erraz gaixotzeko arriskua.

Dortoka bat zaintzeko hainbat irizpide hartu behar dira kontutan, eta lehenengo erabakia dendan bertan hartu beharko dugu: gatibutasunean hazitako edo ingurune basatitik ekarritako dortoka izango ditugu aukeratzeko. Bigarren hauek merkeagoak izan daitezke hasieran, baina gerora arazoak sor ditzakete etxean. Bakoitzak egin behar du bere hautua.

Etixerako bidean

Etxera eroatean, oso litekeena da dortokaren sistema immuno-defentsiboa ahultzea, bidean edo garraioan pairatutako estresaren erruz. Egoera horretan infekzioak jasateko arrisku han-

dia izango du. Horretaz gainera, oso garrantzitsua da etxera eron dugun dortokaren informazioa biltzea: zer arrazatakoa den, nongoa, ohiturak...

Etxean beste espezie bateko dortokak edukiz gero, kome-nigarria da berria berrogeialdian ipintzea hilabeteren bueltan. Modu horretara, gaixotasunak transmititzea ekidingo dugu, espezie batzuk immune izan arren beste batzuentzako hilgarria izan daitekeelako gaixotasun hori.

Uraren kalitatea

Heziketan murgilduta gaudenean, uraren kalitate txarra izango da gaixotzeko arrazoi nagusia.

Argi faltak eta elikatze eskasak ere pisu handia izango dute dortokaren osasunean.

Gaixo jartzen bada, hainbat sintoma garatu ditzake: begiak handitzea, jateko gogo eza, jarrera aldaketak, eztula, behe-rakoa eta oskolean orban zuriak agertzea, kasurako.

Begietako infekzioa

Eritasun hau da dortoken artean ohikoena. Begiak handituta eta ezin zabaldu dagoela ikusten badugu, infekzioa izatea da normalena. Ur zikina edo A bitamina eskasia izango dira horren oinarrian. Ura eta gatzaren nahasketa bat eman beharko diogu egunean birritan.



OSASUN GIDA



PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA

Zainduz


FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PEÑA

OINETAKO KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirurgia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

asteleheneretik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOIA
Kiroprodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
IMQ, PADI (umeen hartz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILIZAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoak, txisari
ezin eusteak, traumatologia, kirola, trafikoko istripua,
drainatze linfatikoa (masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

ESTETIKA

OSASUN ESTETIKA ZENTROA Dra. Aguirre

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena 6
48200 DURANGO

tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOIA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6
jon@psikologo.biz

Durango
www.psicologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Martxoaren 12an, 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean

HAU EZ DA KALKUTA

Orain bederatzi urte estreinatuta zuten *Prostitulua* obra oinarri duen lana da Karrikaren *Hau ez da Kalkuta*. Obra hura berreskuratu dute, eta urte hauetan garatu duten "heldutasun puntua" erantsi diote institutu garaian estreinatuta zutenari. Santa Agedako auzuneko Barrenkale kalea eta *Hau ez da Kalkuta* dendetxoa eraikitzen dute Karrikakoek oholtza gainean. Dendako bezero gehienak emakumeak dira, putak; bakoitzaren gogo, nahi eta ametsak islatuko dituzte antzezlanean.

ANTZERKIA

BERRIZ

- >> Martxoaren 11n, Teatre Nu taldearen **Aitona Matias**, 18:00etan Kultur Etxean.
- >> Martxoaren 12n, Karrika taldearen **Hau ez da Kalkuta**, 20:00etan Kultur Etxean.

DURANGO

- >> Martxoaren 13an, Eme2 taldearen **Tengamos el sexo en paz**, 19:00etan San Agustin kulturgunean.
- >> Martxoaren 13an, Berbaro elkarteak antolatuta Animagic taldearen **Txolo hegalaritontolo** umeentzako antzerkia, 17:30ean Plateruenean.
- >> Martxoaren 18an, AEK-k antolatutako **Euskalaketa bakarriketa lehiaketaren** Bizkaiko finala, 20:30ean Plateruenean.

ZORNOTZA

- >> Martxoaren 12an, Eme2 taldearen **Tengamos el sexo en paz**, 20:00etan Zornotza Aretoan.

BERBALDIA

DURANGO

- >> Martxoaren 11n, CNT sindikatuak antolatuta, **Pedagogia, zientzia eta artea**, Iñaki Astorekaren eskutik, 19:00etan San Agustin kulturgunean.
- >> Martxoaren 12an, Lucio Urtubia eta Juanxo Estebaranzen berbaldia: **Actualidad y vigencia del anarquismo**, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.
- >> Martxoaren 15ean, **Etxean zure jai berriarekin**, 18:30ean, Pinondo Etxeko Andragunean.

IURRETA

- >> Martxoaren 16an, **Testamento foral** hitzaldia, 18:00etan Ibarretxe kultur etxean

DEIALDIAK

BERRIZ

- >> Martxoaren 13an, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, **II**.

Añeketan lasterketa, 12:00etan futbol zelaitik abiatuta.

DURANGO

- >> Martxoaren 13an, Berdintasunaren aldeko **Lila Krosa herri lasterketa**, 12:30ean Ezkurdi plazatik abiatuta.

ERAKUSKETA

ABADIÑO

- >> Martxoaren 18ra arte, Martxoaren 8ko **Kartel lehiaketara** aurkezturiko lanak ikusgai, Errota kultur etxean.

DURANGO

- >> Martxoaren 18a arte, **Emakume Saharaiuen Batasun Nazionala**, Andragunean.
- >> Martxoaren 27ra arte, Susana Alonsoren margolanen **La mancha** erakusketa, Arte eta Historia Museon.

ELORRIO

- >> Martxoaren 11ra arte, Sahara egindako elkartasun bidaian egindako **argazkiak**, Iturrin.

KONTALARIA

DURANGO

- >> Martxoaren 18an, **Felix Albo** Alacant-eko ipuin-kontalariaren **Yayerias** ikuskizuna, 20:00etan liburutegian.

IRTEERA

BERRIZ

- >> Martxoaren 12an, **Atez ateko hondakin bilketa sistema ezagutzeko** Berriz Maite Dugulako ekimenak antolatu duen irteeran abiatuko dira, 08:00etan BBK aurretik.

JAIALDIA

DURANGO

- >> Martxoaren 12an, **Herri Urratsen aldeko Gu ere lakuko!** jaialdia Plateruenean: 12:30ean, Mikel Garaizabalegaz **ardo kata**. 14:00etan, Igor Elortza eta Sustrai Colinagaz **bertso-bazkaria**. 18:30ean, **Pirritx eta Porrotx**-en emanaldia.

MUSIKA

ABADIÑO

- >> Martxoaren 11n, **Reacción 912** eta **CC627** taldeen kontzertuak, 22:00etan Gaztetxean.

DURANGO

- >> Martxoaren 11n, **Dinero, OVNI** eta **Grisés** taldeen kontzertuak, 22:00etan Plateruenean.
- >> Martxoaren 17an, **Rock Izar Eskola maketa lehiaketaren** lehenengo final erdia, 21:00etan, Plateruenean.
- >> Martxoaren 18an, **Mongo** 23:30ean, Misarbe tabernan.

ELORRIO

- >> Martxoaren 18an, **Audience** taldea, **Amerikanuak** diskoa aurkezten, 22:00etan, Arriolan.

ZORNOTZA

- >> Martxoaren 12an, Mañariko **Kirikiño Abesbatzaren** emanaldia, 18:45ean San Juan Bautista ermitan, Larrean.

PAILAZOAK

MAÑARIA

- >> Martxoaren 13an, **Patxin eta Potxin pailazoaren** emanaldia, 17:00etan herriko plazan.

ZINEMA

ABADIÑO

- >> Martxoaren 15ean, **Habitación 1408** filma emango dute, 21:30ean Gaztetxean.

BERRIZ

- >> Martxoaren 13an, **Pa Negra** filmaren emanaldia, 19:00etan Kultur Etxean.

DURANGO

- >> Martxoaren 17an, **Zinema aurreko saiakerak** zineforuma, 19:00etan, liburutegian.



Martxoaren 13an, 17:30ean, Plateruenean

TXOLO HEGALARI TONTOLO

Hamar urte arteko umeentzat munduan zeharreko bidaia da Berbaro elkarteak Plateruenera dakarrena. Kantak, dantzak eta jolasak dira antzezlan honetako bidaia-txartelak. Bere txalupagaz munduan zehar bidaia-tzen urteak eman dituen Mattin marinela da protagonistetako bat: erretiratuta dago eta bere herrian bizi da orain. Bere hegazkinean helduko da Txolo, eta munduan zehar bizi izandako istorioak kontatuko ditu.

>> Martxoaren 18an, Helena Tabernaren **Nagore** filmaren emanaldia, 20:15ean San Agustin kulturgunean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Torrente 4 3D

Zuzendaria: Santiago Segura
barikua 11: 19:00/22:00
zapata 12: 19:30/22:30
domeka 13: 19:30/20:30
astelehena 14: 19:00/22:00
martitzena 15: 20:00 (ikuslearen eguna)

Umeen zinema

Rango

Zuzendaria: Gore Verbinski
zapata 12: 17:00
domeka 13: 17:00

Zineforuma

The fighter

Zuzendaria: David O. Russell
eguna 17: 20:30

ELORRIO

Arriola

La llave de Sarah

Zuzendaria: Gilles Paquet-Brenner
zapata 12: 22:30
domeka 13: 20:00
astelehena 14: 20:00

Umeen zinema

Ga'Hoole: La leyenda de los guardianes

Zuzendaria: Zack Snyder
domeka 13: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

También la lluvia


Zuzendaria: Iciar Bollain
domeka 13: 20:00
astelehena 14: 20:00

Umeen zinema

Ga'Hoole: La leyenda de los guardianes

Zuzendaria: Zack Snyder
martitzena 15: 17:30

DENBORAPASAK

	Mitxeleta	Burdin-bide	Iseka
	Hegazti	*Irudiko ibaia	
	Gizon izena		
	Indioa		
Proiektuak	Metalen erakarlea		
Emakume izena	Zintzo		
		Bat gehi bat	
		Non atzizkia	
Indioa		Bezain-beste	
Kanpo		Lurra	
	Landare urrintsua		
	12		
Erronka jotzeko hitz		Bokala	Barazki lekadunak
Putzuak		Metalezko soka	
		50	
		Hori argi	
1000, 1 eta 500		Bihi	
Begira		Ohorezko hitz emate	
	Emaitzak		
	Molibdenoa		
Bukaera			
Ukapen			
		Toka, naiz	

ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Amama **Mari Luzek** egun bateko atzerapenagaz jaso eban oparia; bere iloba **Laia** etorri zen. **Laia**, ongi etorri. Amama, zorionak. Amatxo zuri be zorionak, eta hirurontzako musu potolo eta gozo bat. Lihor eta Haitzen partez!



Zorionak **Aner!** Martxoaren 9an zure lehenengo urtea egin duzu. Jarraitu hain alai izaten. Musu bat aita, ama eta zure arreba Iratiren partez!



Zorionak **Oier!** martxoaren 11n 4 urte bete dozuz eta familia guztiaren partez zorionak eta lau musu potolo! Ondo pasatu egizu eguna!



Atzo **Maddik** 7 urte bete zituen. Lagunekin ospakizunean ondo pasatu daizula. Aitaxo, amaxo eta Enaitzen partez marrubizko musuak!



Zorionak **Jurgi!** Gure familiako txikiak 4 urteko bete zituen asteazkenean. Musu pila gure mutil bihurriari, familia guztian partez!



Zorionak **Tio!** 15ean urteak betetzen dituzula esan dit boritxo batek, eta ezin izan dut sorpresatxo hau eman gabe gelditu! Laster batean gauzkazu baserrian ospatzeko!



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dugu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.

1

			7	8	3	
	7		3	9	1	
	9	8			7	
6					5	
8				2	3	9
		2		1	4	
			9		6	8
			5			2
2	9	7				

2

		3			4	
	8		2	1		
7	5				9	
9			6	7		
5			1			
		4			5	3
				9		2
					8	5
7			3	6		

BOTIKAK >

- Barikua, 11**
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
- Zapatua, 12**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrenondo 22 - Durango)
09:00-13:30
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
• Unamunzaga (Murueta Torre 2C - Durango)
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
09:00-14:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
- Domeka, 13**
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
- Astelehena, 14**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
- Martitzena, 15**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (E.J. Abasolo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
- Eguaztena, 16**
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murueta Torre 2C - Durango)
- Eguena, 17**
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-22:00
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

- SOS Deiak.....112**
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
- GARRAIOAK**
Euskotren902 54 32 10
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
- TAXIAK**
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia....946 811 001
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690
- UDALAK**
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
- Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
- UDALTZAINGOA**
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
- EGURALDIA >**
- 8 **19º BARIKUA** ☁
11 **16º ZAPATUA** ☁
8 **16º DOMEKA** ☁
11 **12º ASTELEHENA** ☁
5 **16º MARTITZENA** ☁

- ARIES** (martxoak 21 - apirilak 20)
Lehenago edo geroago dentistarenera joaten amaituko duzu. Utzi beldurra albo batera.
- TAURUS** (apirilak 21 - maiatzak 20)
Ez duzu lanik topatzen? Sartu www.anboto.iragar-kilaburak.com-en. Topatuko duzu zeozer!
- GEMINI** (maiatzak 21 - ekainak 20)
Denbora asko darozu bikote perfektuaren bila. Ez galdu itxaropena, noiz edo noiz agertuko da!
- CANCER** (ekainak 21 - uztailak 20)
Hileak geratzen dira oporretarako. Lan berri hori patxadaz hartu, bihotzekoak joko dizu bestelak!
- LEO** (uztailak 21 - abuztuak 23)
Luzaroan itxaron duzun operazio hori egiteko unea heldu da. Lasai, guztia ondo irtengo da.
- VIRGO** (abuztuak 24 - irailak 23)
Ez dago ikusi gura ez duena baino itsuagorik. Ingu-rukoek maite zaituzte, zuk sinistu ez arren.
- LIBRA** (irailak 24 - urriak 23)
Inoiz ez da berandu kirola egiten hasteko. Anima-tu eta hasi gustuko duzun kirola praktikatzan!
- SCORPIUS** (urriak 24 - azaroak 23)
Ez da irakasleak mania dizulako, ikasten ez duzula baina! Hasi ikasten behingoz!
- SAGITARIUS** (azaroak 24 - abenduak 23)
Hiru aste daramatzazu kalabazak jasotzen. Ez etsi, gogor eutsi behar da beti!
- CAPRICORNUS** (abenduak 24 - urtarrilak 20)
Horrela jarraituz gero, oso txarto amaituko duzu. Hausnar-tzea komeni zaizu. Aholkua eskatu benetako lagunei.
- AQUARIUS** (urtarrilak 21 - otsailak 21)
Hasi dirua aurrezten. Onartu berri duten abiaduraren legea dela-eta, hairibat multa jarriko dizkizute datozen hileetan.
- PISCIS** (otsailak 22 - martiak 20)
Badakizu umek oso gustuko dituzula. Zergatik ez zara animatzen bat ekartzera?

SOLUZIOAK

1	5	9	8	7	6	2
4	2	7	6	3	4	9
8	7	6	8	5	1	2
4	8	4	6	8	7	3
8	8	6	3	4	7	6
6	3	4	7	9	2	1
5	4	1	5	2	3	6
3	1	6	2	8	1	4
2	6	1	6	2	5	4
9	3	7	8	9	3	6

6	1	4	4	6	3	5	8
5	5	3	1	2	7	2	7
2	2	6	8	6	8	5	4
2	2	6	8	6	8	5	4
1	4	9	7	3	1	3	3
9	6	6	1	4	3	2	5
8	6	6	1	4	3	2	5
4	4	6	3	6	5	7	1
2	4	6	2	8	3	6	3
7	4	6	2	8	3	6	3
5	7	1	2	4	1	2	4
4	4	3	5	7	1	2	4
8	4	8	6	6	8	9	9
2	1	3	9	7	5	6	4

K	U	V	N	•	O	K	U
V	R	E	I	V	M	V	•
K	V	T	Z	U	•	O	S
E	L	V	•	D	I	W	•
L	•	K	V	N	I	S	O
•	E	•	T	U	X	V	•
V	D	N	E	W	•	T	V
N	I	V	L	•	N	I	•
I	B	•	E	N	O	G	I
V	N	V	M	I	•	E	•
R	E	K	I	•			
I	R	O	X	T			
•	T	•	T	•			

"Gosea eta proba gogorak bai, baina Patagoniako hotza ez da telebistan ikusten"

Guanacoen kolore berdez jantzita azaldu da Etxe elkarrizketara. Patagoniako abenturara birritan pentsatu barik bueltatuko ei litzateke

Iñaki Etxezarraga "Etxe"-k penaz utzi zuen *El conquistador del fin del mundo* lehiaketa, lesio bat tartean zela. Orain dela gutxi ikusi dugu telebistan, dagoeneko lau hile pasatu badira ere. Berriztarra ukitu egin duen bizi-pena izan da Patagoniakoa.

Zelako esperientzia izan da lehiaketakoa? Halakoa imajinatzen zenuen?
Banekien gosea pasatuko genuela, probak gogorak izango zirela, baina konturatu naiz hotza ez dela telebistatik ikusten; hori izan da txarrena. Hasieran gosea pasatu nuen, baina gorputza ohitu egin da. Hotza, ostera... Gau batean zero azpitik hamar gradugaz egin genuen lo kalean, eta arratsaldetan lokartzen ginen, baina gero itzartzean, ezin berriro.

Telebistako lehiaketa izanda, kanpotik zer ez dugu ikusten?
Etxean taldeko proba bat, asanblada bat eta duela bat ikusten ditugu, eta tartean ordu asko daude ezer egin barik. Asanbladarik eta duelerik ez genuenean egun oso bat genuenean, eta ordu hil asko dago; buruari buelta asko ematen zaizkio. Momentu batzuk nahiko gogorak izan ziren niretzat, batez ere, kobazuloko kanpamentuan egon ginenean.

Min hartu zenuen proba gogorra izan zen zuretzat, ezta?
Bai, baina, azken finean, lehiaketan hain sartuta zaudenez, ez zara konturatzeko zelako aberia egin dezakezun. Momentu hartan buruan neukan bakarra proba amaitzea zen, eta irabaztea; edo, behintzat, ez galtzea. Gorputzak "bale" esan arte, hantzen bilen, ekin eta ekin.

Amorrua emango zizun horrela amaitu behar izateak.
Amorrua eta pena... Azken batean, ikusten nuen aurrera jarraitzeko aukerak nituela. Beste taldeetakoek ez ninduten nominatuko indartsuena ez nintzelako; eta nire taldekoek ere ez, ez nintzelako ahulena. Tartean nengoen. Gainera, nire taldeko indartsuekin hartu-eman oso ona neukan momentu horretan; arinago ez, bai-

na Tolas eta Manu irten eta gero bai. Bi aldeetatik salbatuta nengoen, eta aurrera joateko aukera neukala pentsatzen nuen. Horrela irtetzeak amorrua ematen du; galtzen baduzu baten baten kontra, irabazi dizu eta listo, baina horrela etxera joatea gogorra da.

Berriro Patagoniara joateko gogoz?
Oraintxe bertan joango nintzateke! Programan izango balitz ere bai, baina beno, ez dago aukerarik, eta o porretan joan behar. Parajeak ezagutzeko gogoz geratu naiz.

Zer kharritu zaitu?
Gorputza zer baldintzatan bizi daitekeen. Lehenengo hiru egunetan jan barik egon ginen, gero sardina latak jaten, hotza pasatzen... Eta hala ere, jaiki eta umoretsu askotan. Harritu nau zelako mugetaraino eroan ahal izan dudana gorputza, nahiz eta mugamugara ez naizen heldu. Bestela, buruz nahiko prestatuta joan nintzen. Banekien fisikoki ez nituela edukiko beste batzuek edukiahal zituzten aukerak eta beste era batera jokatu behar ko nuela.

Onena oharkabean pasatzea zela komentatu izan duzu...
Bai, eta ideia horregaz

joan nintzen. Lehenengo egunetik ikusi zen Jabi eta Fernando destakatzeko hasi zirela eta Kortak eurei gogor egiten ziela. Isiltzea, denari baietz esatea, burua bajatu eta aurrera egitea erabaki nuen. Horrela jokatu dut; Tolas eta Manu joandakoan trankilago nengoen eta gehiago agertu naiz, baina lehen egunetan isil-isilik ibili nintzen.

Korta telebistatik ikusten den bezain zorroztza da?

Kortagaz sorpresa onak eta txarrak hartu ditut. Kristoren kapitaina da, baina eliteko kirolarientzat. Ahula bazara matxakatu egiten zaitu, eta ondo dago, ahal duzun eta gehien ateratzen duzulako, baina heldu momentu bat daukazu eliteko kirolarientzat. Ahula bazara matxakatu egiten zaitu, eta ondo dago, ahal duzun eta gehien ateratzen duzulako, baina heldu momentu bat daukazu eliteko kirolarientzat. U n e batzue-tannikez nekien zer edo z e r

esan, zer edo zer egin... erremontatzeko moduan egon nintzen. Oso burugogorra zen, eta segun eta nork esaten zituen gauzak, ondo edo txarto hartzen zuen; taldeko indartsuek esaten bazuten, ondo, eta beste batzuek esaten bagenuen, gure kontra jotzen zuen.

Zer iruditzen zaizu aurten egin duten hiru taldeen formatua?

Harako bidaian, zortzi mutil gindoz. Buelak ematen egon ginen kontuari; zortzi neska egongo zirela pentsatzen genuen, eta hori gutxi zela, eta kanpotik etorritako batzuk ere egongo zirela da atera genuen ondorioa. Bi talde pentsatzen genuen izango ginela; lau neska, lau mutil eta lau etorkin. Lehenengo egunetan konturatu ginen ez zela horrela. Jendeak pentsatu zuen mutilok gogor egingo genuela, baina guk argi geneukan lehenengotatik neskak ez zirela edozelakoak eta egurra emango zutela. Poztu egin nau, orain arte begiz jota ibili izan direlako neskak: arinen etxera joaten zirenak ziren. Etorrinen talde arraragoa da, baina konpletoena ere bada. Lehenengo egunetan bi galdu zituzten, eta ordutik ez dute inor galdu.

Musikagatik ere galdetu behar dizugu. Zer egitasmo duzu buruan?

Mafia taldeagaz diskoa atara genuen, eta ea kontzertu batzuk ematen ditugun. Nire proiektua dela eta, orain arte ibili naizen bandagaz etenaldi bat egin dut, eta hasi naiz kantak berriro akustikokoan lantzen eta kanta berriak egiten. Udaberri inguruan akustikokoan kontzertu batzuk ematen hasteko asmoa daukat. Egia esan, Patagonian egon nintzenetik beste modu batera ikusten ditut gauzak eta oraindik ez naiz musika arloan zentratu.

> Bideoa: www.anboto.org

Iñaki Etxezarraga "Etxe" •

Abeslari eta musikari berriztarra
El conquistador del fin del mundoko lehiakidea



Aitor Aurrekoetxea
EHUKo irakaslea

Gadafi

Ez dago garbi zer pasatuko den Libian, baina ematen du Gadafik boteretik botatzea ez dela, Tunezekoa bezala, hain erraza izango.

Badira berrogeita hiru urte diktadoreak boterea eskuratu zuela, eta Muamar Gadafik espioitza sare indartsua eraikitzeke denbora nahikoa izan du.

Lerrock idazten ari naizenean Gadafik Tripoli menpean du, eta nahiz eta zonalde asko galdu, bere aldeko indarrek arma eta logistika kontu handiak dituzte. Gainera, diru asko ere badu, eta mertzenario ejertzito bat kontratatzeke bidean dago. Ikusiko dugu, baina zalantza barik guda zibil baten aurrean gaudela esan dezakegu.

Dena den, Gadafiren portaera nazkagarritik at, niri onartezina iruditzen zaidana Europar Batasunak izan duen jarrera da.

Duela hilabete batzuk Berlusconi eta Sarkozy arazo barik egin zioten harrera Gadafiri, eta Moratinos jaunak ere gauza bera egin duela esan daiteke. Libian matxinatuak zutitu direnean ez dute jakin zeren alde jo...

Argi utzi diguten gauza bakarra izan da petrolio askoz gehiago interesatzen zaiela giza eskubideen defentsa baino, eta Europar Batasunak berriro parada ederra galdu du erregimen totalitarioetatik urruntzeko.

Zer gertatuko da Marokon matxinada baldin badago? Espainiako erregeak ezkutatu egingo ditu Hassan Bigarrenarekin ateratako argazkiak?

Bitxia bada ere, nire ustez, Obamak askoz garbiago eta azkarrago jokatu du Europa zaharreko diplomaziak baino; jakina, Afganistango eta Irakeko arazoekin nahikoa duelako. Penagarria benetan.

JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRÉSNAK
Salmenta eta konponketa

HONDA STIHL SAME pasquali VIKING CARON BCS

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel-Faxa: 94 623 18 03